



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA



Bidasoa - Txingudi

AURKIBIDEA

EGITURA EKONOMIKOA. SARRERA ETA GASTUEN EGOERA	4
SARRERA	5
2025-2026ko AURREKONTUAREKIN ALDERATZEKO AZTERKETA	9
EKARPENAK ALDERATZEKO AZTERKETA	11
PROGRAMA FUNTZIONALEN. AZALPEN KOADROAK	12
Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra (150)	13
Hirigintza. Herriguneetarako sarbidea (153.1)	14
Ingurumena babestea eta hobetzea (172)	15
Kulturaren sustapena (334)	16
Euskara (335)	17
Kirola sustatzea eta bultzatzea (341)	18
Azokak (431-10)	19
Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena (432)	20
Administrazio Orokorra (920)	22
Erakundearen Administrazio Orokorra (920)	23
Herritarren partaidetza (924)	26
Ekonomia eta zerga politika – Kontu-hartzailatza (931)	27
Ekonomia eta zerga politika – Auditoretza zerbitzuak (931)	28
Ekonomia eta zerga politika – Aurrekontuak, kontabilitatea (931)	29
Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa – Finantza gastuak (934)	30
Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa – Diruzaintza, bankuen kudeaketa (934)	31
Azalpen oharra Bidasoa biziriken kudeaketa gastuei buruz	32
MEMORIA	34
1.- EKONOMIA EGOERA	35
2.- FINANTZA EGOERA	35
3.- AURREKONTUA PRESTATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTUTAKO IRIZPIDEAK	35
4.- AURREKONTUAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK	35
5.- AURREKONTUAREN EDUKIA	35
5.1.- Sarrerren Egoera	35
5.2.- Gastuen Egoera	36
TRANSFERENTZIEN ERANSKINA	37
MUGAZ GAINDIKO KIROL EKITALDIETARAKO LAGUNTZA IZENDUNAK	
ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK	38
1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK	39
2- XEDEA	39
3- ESKAERAK	39
4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN	40
5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA	40
6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK	40
7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA	41
8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA	41
9- INSTRUKZIO ORGANOAK	41
10- DIRULAGUNTZAK ORDAINITZEA	42
11- DIRULAGUNTZEN KONTROLA	44
12- EZ BETETZEA	44
13- INTERPRETAZIOA	44
LAGUNTZA IZENDUNEN ERANSKINA	45
TOKIKO KOMUNIKABIDEEN ESPARRUAN EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-	
LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK	46
1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK	47



Bidasoa - Txingudi

2- XEDEA	47
3- ESKAERAK ETA BALDINTZAK	47
4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN.	48
5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA	48
6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK	48
7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA ETA DIRULAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA	49
8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA	50
9- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA GASTUAREN FROGAGIRIAK	50
10- DIRULAGUNTZEN KONTROLA	52
11- EZ BETETZEA	52
12- INTERPRETAZIOA	53
MUGAZ GAINDIKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK - HIRUAK BAT	54
1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK	55
2- XEDEA	55
3- ESKAERAK	55
4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN	56
5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA	56
6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK	57
7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA ETA DIRULAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA	57
8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA	58
9- INSTRUKZIO ORGANOAK	58
10- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA GASTUAREN FROGAGIRIAK	58
11- DIRULAGUNTZEN KONTROLA	60
12- EZ BETETZEA	61
13- INTERPRETAZIOA	61
AURREKONTU EXEKUZIORAKO ARAUA	62
1. Artikulua	63
2. Artikulua	63
3. Artikulua	63
4. Artikulua	63
5. Artikulua	63
Kreditu-aldaketa	63
Kredituen transferentzia	64
Kredituen gaitzea	64
Kredituak Gehitzeko espedienteak	64
Kreditu gehigarriak	64
6. Artikulua	64
7. Artikulua	65
8. Artikulua	65
9. Artikulua	66



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

EGITURA EKONOMIKOA. SARRERA ETA GASTUEN EGOERA

**(Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki
Erakundearen aurrekontua arautzen duen
abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUAren
11. Artikulua)**



Bidasoa - Txingudi

SARRERA

Dokumentazio honek Bidasoa – Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoaren 2026 ekitaldiko Aurrekontu Orokorra osatzen du.

Partzuergoaren Aurrekontuak bere egitura ekonomikoa aurkezten du, Sarrerak eta Gastuen Egoerak zehazten ditu, eta duten izaera ekonomikoaren arabera osatutako aurreikuspenak eta kredituak ordenatzen ditu, 21/2003ko Foru Arauaren 11. Artikuluan xedaturiko sailkapenaren arabera eta Foru Arau beraren 7. eta 8. Artikuluek xedaturikoaren arabera. Hona kapituluaren araberrako laburpena:

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA		
LABURPENAK KAPITULUEN ARABERA		
SARREREN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
IV	Transferentzia Arruntak	409.662,60 €
Sarreraren Egoera Guztira		409.662,60 €
GASTUEN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
I	Langileen Gastuak	5.900,00 €
II	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	3.000,00 €
III	Finantza Gastuak	500,00 €
IV	Transferentzia Arruntak	400.262,60 €
Gastuen Egoera Guztira		409.662,60 €



Bidasoa - Txingudi

Hona hemen aurrekontuan jasotako sarrera eta gastuen xehetasuna kontu-sailen arabera:

- ☐ Sarreren Egoera.
- ☐ Gastuen Egoera (gastuen sailkapen ekonomikoa).
- ☐ Gastuen Egoera (gastu-programen arabera sailkapena).

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA				
2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA				
SARREREN EGOERAREN XEHETASUNA AURREKONTU-SAILEN ARABERA				
(Zenbatekoak Eurotan)				
Salkapen Ekonomikoa		Izena	Kontusaila	Kapitulua
		IV. Kapitulua. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		409.662,60 €
420	01	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kultura)	6.557,60 €	
420	02	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kirolak)	11.665,00 €	
430	01	Irungo Udala	195.720,00 €	
430	02	Hondarribiko Udala	97.860,00 €	
430	03	Hendaiako Udala	97.860,00 €	
		SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	409.662,60 €	409.662,60 €



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

GASTUEN SAILKAPEN EKONOMIKOA

GASTUEN EGOERAREN XEHETASUNA AURREKONTU-SAILEN ARABERA (Zenbatekoak Eurotan)

Sailekapenak			Izena	Kontusaila	Kapitulua
Ekonomik.	Gastu programa				
			I. Kapitulua. Langileen Gastuak		5.900,00 €
140	01	920	Administrazio Orokorra (Idazkaritza Nagusia)	2.950,00 €	
140	01	931	Politika ekonomikoa eta fiskala (Kontu-hartzailetza)	2.950,00 €	
			II. Kapitulua. Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan		3.000,00 €
227	99	931	Politika ekonomikoa eta fiskala (Auditorerak-zerbitzuak)	3.000,00 €	
			III. Kapitulua. Finantza gastuak		500,00 €
369	01	934	Zorren eta diruzaintzen kudeaketa (Finantza gastuak)	500,00 €	
			IV: Kapitulua. Transferentzia Arruntak		400.262,60 €
433	01	153.1	Hirigintza. Herriguneetarako sarbidea (Mugikortasuna sustatzea, joan-etorri buruzko informazioa)	12.000,00 €	
433	01	172	Ingurumena babestea eta hobetzea (Ondare historikoaren eta naturalaren balorizazioa)	2.500,00 €	
433	01	334	Kulturaren sustapena (Bidasoa Folk musika jaialdia)	45.000,00 €	
433	01	335	Euskara (Bertso Eskola antolatzea, euskara sustatzeko jarduerak)	27.000,00 €	
433	01	341	Kirola sustatzea eta bultzatzea (Kirol Jaia antolatzea, ekitaldietarako eta klubei laguntza)	48.000,00 €	
433	01	432	Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena (Bidasoko Interpretazio Zentroa, mugaz-gaindiko helmuga)	29.500,00 €	
433	01	920	Administrazio Orokorra (Langileria, Bulegoa, Itzulpena, Informatika, Dietak, Aholkularitza)	180.765,06 €	
433	01	924	Herritarren parte-hartzea (Bidasoko Topaketak, Hiruak Bat Laguntzak)	25.000,00 €	
433	01	931	Politika ekonomikoa eta fiskala (Aurrekontuak, kontabilitatea)	23.141,35 €	
433	01	934	Zorren eta diruzaintzen kudeaketa (diruzaintza, bankuen kudeaketa)	1.601,19 €	
471	01	150	Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra (Euskal Eurohirirako ekarpena)	2.750,00 €	
471	01	431-10	Azokak (Erakustazokarako ekarpena)	3.005,00 €	
			GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA	409.662,60 €	409.662,60 €



Bidasoa - Txingudi

Sailkapen				
Ekonomikoa		Izena	Kontusaila	Programa
		150 Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra		2.750,00 €
471	01	Euskal Eurohirirako ekarpena	2.750,00 €	
		153.1 Hirigintza. Herriguneetarako sarbidea		12.000,00 €
433	01	Mugaz-gaindiko mugikortasun jasangarria sustatzea, joan-etorriei buruzko informazioa	12.000,00 €	
		172 Ingurumena babestea eta hobetzea		2.500,00 €
433	01	Historia eta natur ondareari balioa ematea	2.500,00 €	
		334 Kulturaren sustapena		45.000,00 €
433	01	Bidasoa Folk musika jaialdia	45.000,00 €	
		335 Euskara		27.000,00 €
433	01	Bertso Eskola antolatzea, euskara sustatzeko jarduerak	27.000,00 €	
		341 Kirola sustatzea eta bultzatzea		48.000,00 €
433	01	Kirol Jaia antolatzea, ekitaldietarako eta klubei laguntzea	48.000,00 €	
		431-10 Azokak		3.005,00 €
471	01	Erakustazokarako ekarpena	3.005,00 €	
		432 Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena		29.500,00 €
433	01	Bidasoko Interpretazio Zentroa, Mugaz-gaindiko helmuga	29.500,00 €	
		920 Administrazio Orokorra		183.715,06 €
140	01	Idazkaritza Nagusia	2.950,00 €	
433	01	Langilearia, Bulegoa, Itzulpena, Informatika, Dietak, Aholkularitza	180.765,06 €	
		924 Herriarren parte-hartzea		25.000,00 €
433	01	Bidasoko Topaketak, Hiruak Bat Laguntzak	25.000,00 €	
		931 Politika ekonomikoa eta fiskala		29.091,35 €
140	01	Kontu-hartzailetza	2.950,00 €	
227	99	Auditoretza zerbitzuak	3.000,00 €	
433	01	Aurrekontuak, kontabilitatea	23.141,35 €	
		934 Zorren eta diruzaintzaren kudeaketa		2.101,19 €
369	01	Finantza gastuak	500,00 €	
433	01	Diruzaintza, bankuen kudeaketa	1.601,19 €	
		GUZTIRA GASTUEN AURREKONTUA	409.662,60 €	409.662,60 €



Bidasoa - Txingudi

2025-2026ko AURREKONTUAREKIN ALDERATZEKO AZTERKETA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA		
LABURPENA KAPITULUEN ARABERA		
SARREREN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
IV	Transferentzia Arruntak	409.662,60 €
Sarrerren Egoera Guztira		409.662,60 €
GASTUEN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
I	Langileen Gastuak	5.900,00 €
II	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	3.000,00 €
III	Finantza Gastuak	500,00 €
IV	Transferentzia Arruntak	400.262,60 €
Gastuen Egoera Guztira		409.662,60 €

2025 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA		
LABURPENA KAPITULUEN ARABERA		
SARREREN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
IV	Transferentzia Arruntak	399.817,00 €
Sarrerren Egoera Guztira		399.817,00 €
GASTUEN EGOERA		
Kapitulua	Izena	Euroak
I	Langileen Gastuak	5.900,00 €
II	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	3.000,00 €
III	Finantza Gastuak	1.000,00 €
IV	Transferentzia Arruntak	389.917,00 €
Gastuen Egoera Guztira		399.817,00 €



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA			
2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA			
SARREREN EGOERAREN XEHETASUNA AURREKONTU-SAILEN ARABERA			
(Zenbatekoak Eurotan)			
Salkapen Ekonomikoa	Izena		Kapitulua
		IV. Kapitulua. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	409.662,60 €
420	01	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kultura)	6.557,60 €
420	02	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kirolak)	11.665,00 €
430	01	Irungo Udala	195.720,00 €
430	02	Hondarribiko Udala	97.860,00 €
430	03	Hendaiaiko Udala	97.860,00 €
		SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	409.662,60 €

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA			
2025 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA			
SARREREN EGOERAREN XEHETASUNA AURREKONTU-SAILEN ARABERA			
(Zenbatekoak Eurotan)			
Salkapen Ekonomikoa	Izena		Kapitulua
		IV. Kapitulua. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	399.817,00 €
420	01	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kultura)	5.752,00 €
420	02	Gipuzkoako Foru Aldundia (Kirolak)	11.665,00 €
430	01	Irungo Udala	191.200,00 €
430	02	Hondarribiko Udala	95.600,00 €
430	03	Hendaiaiko Udala	95.600,00 €
		SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA	399.817,00 €



Bidasoa - Txingudi

EKARPENAK ALDERATZEKO AZTERKETA

EKITALDIA	2025	2026
Irungo Udala	191.200,00 €	195.720,00 €
Hondarribiko Udala	95.600,00 €	97.860,00 €
Hendaiako Udala	95.600,00 €	97.860,00 €
Kanpoko Ekarpina	17.417,00 €	18.222,60 €
Guztira	399.817,00 €	409.662,60 €
Udalen Ekarpina	95,64%	95,55%



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

PROGRAMA FUNTZIONALEN. AZALPEN KOADROAK

**Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki
Erakundearen aurrekontua arautzen duen
abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUAren
12. Artikulua**



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Etxebizitzaren eta hirigintzaren administrazio orokorra (150)

Euskal Euro-hirirako ekarpena

Baiona-Donostia Euskal Euro-hiriarekiko atxikimenduak eta Euro-hiria garatzeko Intereseko Elkarre Europarraren erakundeetan parte hartzeak **2.750 Euroko** kostua gain hartzea ekartzen dute.

Jarduera:

- Euro-hiria garatzeko AEI Eren Administrazio Kontseiluaren bileretan parte hartu.
- Euro-hiria garatzeko AEI Eren Zuzendaritza Batzordean parte hartu.
- Lan batzordeetan, honako gai hauetan parte hartu:
 - Mugikortasun eta Garraioa
 - Garapen Iraunkorra
- Lan Hauek Partzuergoaren jarduerak orokorrekin lotu eta bereziki Ingurugiro eta Mugikortasun batzordearekin.
- Hiru hirien interesak babestea Euro-hiriaren inguruko hausnarketan esparruan.
- Jardueren jarraipena egitea.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.750 €
471.01 – Aportazioak beste enpresei	
Euskal Euro-hirirako ekarpena	2.750 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Hirigintza. Herriguneetarako sarbidea (153.1)

Mugaz-gaindiko mugikortasun jasangarria sustatzea, joan-etorriei buruzko informazioa

Mugikortasunaren gaian, mugaz gaindiko elkarlanak mugikortasun arinaren eta hiriarteko garraioaren gaiak landuko ditu; eta, hasieran, **12.000 euroko** kostua du urtean.

Jarduera:

- Mugaz gaindiko mugikortasuna sustatzeko baterako jarduerak antolatzea eta herritarrak sentsibilizatzea, desplazamendu iraunkorreko bitartekoak erabiltzeko bidean aurrera egiteko.
- Mugaz gaindiko mugikortasunari buruzko mikro-gunea eguneratu eta elikatzea: <https://smartmob.irunhondarribiahendaye.com>
- Mugaz-gaindiko mugikortasun-mapa eguneratu eta berrinprimatu
- Informazio-tresna berriak sortzea
- Mugaz gaindiko mugikortasuna garatzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea.

Ekitaldi honetarako proposatzen diren lanak honako hauek dira: herritarrak mugaz gaindiko lekualdatzeko sortu den informazio-tresna komuna eguneratzea eta aberastea, eta dinamizazio-jarduerak antolatzea, gure lurraldean mugikortasun iraunkorreko metodoen erabilera errazteko eta sustatzeko.

Era berean, mugaz gaindiko garraio-sare baten garapen adimentsu eta jasangarrian laguntzeko erakunde eskudunen artean dauden proiektuen jarraipena egingo da, Bidasoaren bi aldean arteko herritarren joan-etorri gehiago hobetuko dituen.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	12.000 €
433.01 – Erakundearen Elkartea Publikoei	
Mugaz-gaindiko mugikortasun jasangarria sustatzea	6.000 €
Joan-etorriei buruzko informazioa	6.000 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Ingurumena babestea eta hobetzea (172)

Ondare historikoaren eta naturalaren balorizazioa

Arlo honetako mugaz gaindiko lankidetzak badiako ondare historiko eta naturalarekiko eta bere babesarekiko sentsibilizazio gaiak landuko ditu, hasiera batean urteko **2.500 euroko** kostuarekin.

Jarduera:

- Ondare historiko eta naturalarekin zerikusia duten lehiaketak eta/edo tailerrak antolatzea.
- Interes historiko eta naturaleko beste jarduera edo erakusketa batzuk aztertzea.
- Tokiko arte, historia eta ingurumen elkarteekin elkarlanean jardutea.

Bidasoako Interpretazio Zentroa dinamizatzeko planari dagokionez, ondare historiko eta naturalarekiko sentsibilizazio-jarduerak antolatuko dira, herritarren eta elkartearen parte-hartzearekin, eta "Marraztu Bidasoa" eta "Ibai izena duen herrialde bat" ereduarekin jarraituko da.

Era berean, beste lehiaketa eta erakusketa aukera batzuk bilatzeko ahaleginak egingo dira eskualdeko arte, historia eta ingurumen elkarteekin batera.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.500 €
433.01 – Erakundearen Elkarte Publikoei	
Ondare historikoaren eta naturalaren balorizazioa	2.500 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Kulturaren sustapena (334)

Bidasoa Folk musika jaialdia

Musika akustiko, etniko eta garaikideko jaialdiaren antolaketa eskualdeko topaketa plataforma eta kultur sustapen modura bermatzea dira kultur programaren helburuak. Haserako kostua **45.000 eurokoa** da.

Jarduera:

Bidasoa Folk nazioarteko jaialdia udal kultur eskaintzatik bereizitako kalitatezko ekitaldi gisa antolatzen da. Denborak aurrera egin ahala, abuzturako jarduera erreferente bihurtu da lurraldean, eta jende askoren erantzuna jaso du.

2026an, gainera, jaialdi honen 25. urteurrena ospatuko dugu, nazioko eta nazioarteko musika-panoraman erreferente gisa sendotu izanaren froga, gure lurraldeko kultura-eskaintza zabalari lagunduz.

Zentzu horretan, programaren eta bere irudiaren presentzia zeharkakotu nahi da, arratsaldeko kontzertuak beste publiko batzuei (familiak, haurrak, helduak) zuzendutako jarduerekin aberastuz, hiri espazio jendetsuetan, hala nola, oroimenezko bideoa, saio akustikoak, kultur adierazpenak, hezkuntza tailerrak...

Proposamen berri horiek, azken edizioetako egiturazko kostuen inflazioari gehituta, aurrekontu-partida honela handitzea eskatzen dute:

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	45.000 €
433.01 – Erakundearen Elkarre Elkarteko Publikoak	
Bidasoa Folk musika jaialdia	45.000 €

Lan-programa horretarako, laguntza bat eskatzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA **Euskara (335)**

Bertso Eskola antolatzea, euskara sustatzeko jarduerak

Euskara programaren helburuak euskara erabiltzeko eta praktikatzeko jarduerak soziokulturalak kudeatzea eta antolatzea dira. Hasiera batean, kostua 27.000 euro da.

Jarduera

2003tik Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoak Bertso Eskola kudeatzen du gure lurraldeko helduentzako. Sortu zenetik, Bertso Eskola eta, aldi berean, gure inguruko Bertsolaritzaren mugimendua haziz joan dira udal Euskara Arloen eta elkarteek bultzatutako jardueren bidez garatzen diren jarduerari eta kopuruari dagokienez.

Eskualdeko komunikabideentzako laguntzen helburua da eskualdean dauden komunikabideetan edukia sortzen laguntzea, euskaraz kontsumitzeko eta gizarteratzeko aukera bermatuz.

Halaber, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren helburuetako bat hizkuntza horren ikaskuntza, hobekuntza eta sozializazioa sustatzea denez, hori sustatuko duten jarduerak aurreikusten dira, hala nola, mugaz gaindiko euskarazko irratzi-programak, mintzodromoa, eskola-umeentzako jokoak edo bisita gidatuak. Beraz, gastua handitu egingo da.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	27.000 €
433.01 – Erakundearen Elkarte Publikoei	
Bertso Eskola antolatzea	10.000 €
Euskara sustatzeko jarduerak	10.000 €
Komunikabideentzako laguntzak	7.000 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA **Kirola sustatzea eta bultzatzea (341)**

Kirol Jaia antolatzea, ekitaldietarako eta klubei laguntzea

Kirola bultzatzeko eta sustatzeko programaren helburuak dira mugaz gaindiko esparruan udalen arteko lankidetzak eta kirol arloetako informazioa sendotzea eta esparru horretan jarduerak egiten dituzten beste erakundeekin lankidetzan aritzea. Era berean helburua da toki mailan barne eta kanpo eragileen arteko harremanak sustatzea eta klubei eta elkartei laguntzea euren mugaz gaindiko lankidetzak proiektuetan. Hasiera batean 48.000 eurokoa da kostua.

Jarduera:

- Ekarpinak egingo dira mugaz gaindiko ekitaldiei laguntza izendunak emateko espediente administratiboen bidez, mugaz gaindiko jarduera horiek Partzuergoaren irizpideak eta helburuak betetzen badituzte.
- Eskola kirolaren jaia antolatzen da hiru udalerrietako ikasleen parte hartzearekin, etorkizunean eskualdeko herritarren arteko mugaz gaindiko espiritua sendotzeko modu bat den jarduera honekin.
- Kirol klubei laguntza teknikoa ematen zaie mugaz gaindiko ekimenak abiarazterakoan planteatzen diren arazoei aurre egiteko.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		48.000 €
433.01 - Erakundearen Elkarte Publikoei		
Ekitaldietarako laguntzak		24.000 €
Bidasoa Itzulia	17.800 €	
Txingudi Korrika	4.400 €	
Bidasoa Ibaiaren jaitsiera hegatsen	1.800 €	
Kirolaren Jaia antolatzea		20.000 €
Klubei eta selekzioei laguntzea		4.000 €

Lan programa hau Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren artean sinatutako Lankidetzak Hitzarmenaren urteko eguneratzearen mende dago. Horren arabera, ekarpen ekonomiko bat eskatzen da, programa honetarako aurrekontu-aurreikuspenetan kontuan hartzen dena, eta aipatutako laguntzak emateko baldintzak ezarriko dituen.



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA
Azokak (431-10)

Erakustazokarako ekarpena

Partzuergoak Bidasoako Erakustazoka, S.A.-ren proiektuan eta akzioetan duen partaidetza eta inplikazioa sendotzea, **3.005 euroko** kostuarekin.

Jarduera:

Partzuergoak Elkarre Anonimoan dituen akzioen gastu arruntaren kostua bere gain hartzea.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.005 €
471.01 – Aportazioak beste enpresei	
Erakustazokarako ekarpena	3.005 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA **Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena (432)**

Bidasoko Interpretazio Zentroa, Mugaz-gaindiko helmuga

Informazio eta Sustapen turistikoko programaren helburuak dira Bidasoko Interpretazio Zentroa kudeatzea eta hari eustea. Programak aipatutako zentroko arreta eta animazioa eskaintzen ditu tokiko elkarteekin laguntzarekin. Bestalde, sektoreak adierazitako kezkei eta iradokizunei erantzunez, mugaz gaindiko lurraldea sustatzeko politika turistikoen plangintza bateratua sendotzeko lan egiten ari da. Era berean, turismo sektore pribatua eta eskumena duten erakunde publikoak sentsibilizatu nahi dira irudi turistikoa komun baten proiektioan, mugaz gaindiko norakoaren proiektioan, parte har dezaten. Bukatzeko, Badiako Bideko seinaletikaren urteko mantentze lanen gastuak kontuan hartzen dira. Hasiera batean **29.500 eurokoa** da kostua.

Jarduerak:

- Informazio turistikoa emateko kanpaina eta baliabideak sortzea
- Partzuergoaren web-atarietako edukietan laguntzea
- Sektorearentzako informazio tresnak prestatzea
- Bisitarientzako eta herritarrentzako liburuxkak eta ikus-entzunezkoak argitaratzea
- Bidasoko Interpretazio Zentroa kudeaketa eta mantentzea
- Animazio eta erakusketa jarduerak proposatzea
- Turismo bulegoen arteko koordinazio eta trukea
- Bidasoa-Txingudiko Badia Bideko mantentzea eta hobekuntza.

Kontu sail honen barruan, dibulgazio-materialak paperean edo formatu digitalean berrargitaratuko dira, eta sustapen-jarduerak egingo dira, baliabideak optimizatuz betiere, eskualdeak turismo merkatuan mugaz gaindiko helmuga gisa duen irudiaren posizionamenduari eusteko. Tresna horiek herritarrei beren inguruneari buruzko informazioa emateko ere balio dute.

Illo horretatik, mugaz gaindiko mugikortasun programarekin elkarlanean hasitako lanak egiten jarraituko da, eta Partzuergoaren web ataria (www.irunhondarribiahendaye.com) elikatzen lagunduko da.

Era berean, tokiko turismo sektoreko profesionalentzako informazio tresnak prestatzea aurreikusten da, baliabideak hobeto ezagut ditzaten eta, horrela, bezeroentzako intereseko informazioa hobetu dezaten.

Horretaz guztiaz gain, Irungo Udalak Partzuergoari Bidasoko Interpretazio Zentroaren erabilera laga izanaren eta haren kudeaketa agindu izanaren berezko lan guztiak egingo dira. Mantentze-lanek beharrezkoa dute zerbitzu eta hornigai batzuen kontratatzea, eta haien kostuak ere gora egiten ari da KPlak gora egin ahala eta urtearen berezko narriadurarengatik.

Alde horretatik, kontuan izan beharra dago hura mantentzeko beharrezkoa dela zerbitzu eta hornigai batzuk kontratatzea eta haien kostua gora egiten ari dela KPlak gora egin ahala.



Bidasoa - Txingudi

Gainera, aurreko urteetako turismo bulegoen arteko trukaketekin jarraituko da. Hendaye Tourisme eta Hondarribia Irun Turismoaren arteko lankidetzak estuarekin, lan tekniko eta administratibo batean oinarritzen den jarduerak da.

Azkenik, Badiako Bideko seinaleak mantentzeko eta liburuxka berrargitaratzeko lanak egingo dira urtero, Irun, Hondarribia eta Hendaiako udal-zerbitzuekin lankidetzan, egitura eta edukiak egoera onean gorde daitezzen ibilbide osoan.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	29.500 €
433.01- Erakundearen Elkartea Publikoei	
Bidasoko Interpretazio Zentroaren funtzionamendu-gastuak	20.000 €
Mugaz gaindiko helmugari buruzko elkarlana eta komunikazioa	7.000 €
Badiako Bidean mantentze- eta hobekuntza-lanak	2.500 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Administrazio Orokorra (920)

Idazkaritza Nagusia

Partzuergoak bere gain hartu beharreko Idazkaritza gastuak lrungo Idazkari Nagusiaren eskuordetzearen ondorioz, Idazkaritza teknikariak egindako lanen dietei dagozkie, **2.950 euroko** kostua da.

Jarduera:

Idazkaritza lanak, ebazpenak eta lehendakaritzako dekretuak idaztea, kontratuak eta hitzarmenak egitea, laguntza izendunak bideratzea, Batzar Nagusiari proposamenak helaraztea, lege-zalantzak argitzea, eta Partzuergoaren organo erabakitzaileentzako prestatu beharreko beste edozein dokumentu juridikoak egitea dira.

Jarduera guzti hauek Partzuergoaren esanetara dagoen talde teknikoaren laguntzarekin burutzen dira.

I. KAPITULUA. LANGILERIA GASTUAK	2.950 €
140.01 - Dietak	
Idazkaritza Nagusia	2.950 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Erakundearen Administrazio Orokorra (920)

Langileak, Bulegoa, Itzulpena, Komunikazioa, Informatika, Dietak, Aholkularitza

Partzuergoak bere gain hartu beharreko Administrazio Orokorreko gastuak Partzuergoan jarduten direnen soldata eta gizarte segurantzari, Bidasoa biziriken kudeaketa gastuei, Bidasoko Interpretazio Guneko mantenimendu gastuei, Partzuergoaren hiru hizkuntza ofizialetan egin beharreko itzulpenei, baita turismoaren kasuan ingeleseko itzulpenei ere, bulego materiala eta horniketei, dieta eta bidaiei, aholkularitza juridikoari, kontabilitate publikoko IZFE programaren mantenimenduari, aplikazio informatikoei eta WEB atariaren mantenimendu eta ostatu-emateari, ekitaldiei eta jardueri buruzko komunikazioari, aholkularitza juridikoari, postaz eginiko bidalketei, iragarkiei, mezularitza eta jakinarazpenei, beste batzuei eta aurre ikusi gabeko gastuei dagozkie, guztira **180.765,06 euroko** kopuruagatik.

Partida honetan egokitze garrantzitsua burutu da, honako gai hauetan, barne-lanari lehenetasuna eman zaiolako:

- Partzuergoak erabiltzen dituen hiru hizkuntza ofizialek dokumentazioa itzultzea, baita Turismoaren arloan ingelesera ere.
- Hirugarrenetik eta Bidasoa bizirikeko kudeaketa dokumentuak egitea Partzuergoko Idazkariak eta Kontuhartzaileak gainbegiratzuz.
- Bulego materialaren optimizazioa, teknologia berriek eskaintzen dituzten tresnez baliatuz.
- Kostu txikiko garraiotan bidaiatu eta bidai bakoitzean parte hartzen duten pertsonen arteko baliabideen optimizazioa.
- Interneteko eta sare sozialetako informazio-atarien administrazioa (testuak idatzi, itzulpenak, atal aktiboaren mantenimendua eta gainontzeko atalak eguneratzeko koordinazioa).

Halaber, azpimarratzekoa da, honako honetara zabaltzen da:

- Udaletxeetatik bideratutako edo norberaren ekimena dela eta Partzuergora bideratzen diren hiritarrei zuzendutako lekuko harrera, telefonikoa eta elektronikoa.
- Udal Zerbitzuek bere proiektu eta jardueren esparruan eskatutako informazio eta/edo itzulpen lanak.
- Ducoureau bulegoetatik mugaz gaindiko arazoak dituzten jubilatuei eskaintzen ari den arreta zerbitzua.
- Partzuergoko egoitza den %4,42ko metro koadroko okupazioa duen Ducoureau jauregiko mantentze-lanak.



Bidasoa - Txingudi

Jarduera:

➤ **Bulego lanak (itzulpenak, IZFE kontabilitatea...)**

Aurretik aipaturiko idazkaritza eta kontu-hartzailetzako lanez gain, Hirugarrenei ordaintzeko aginduak, eskaera eta justifikazioen tramitazioa, kontabilitate kontrola, zerbitzu-prestazioen adjudikazioa, materiala erostea, atarien mantenimendua eta dokumentuak egiteko gainontzeko lan ofimatikoa, hizkuntza ezberdinetara itzulpenak egitea, udaletxei eta hirugarrengoei informazioa igortzea, bilerak antolatzea, hiritarrak atenditzea, datuak eguneratzea, kontsultei erantzuna ematea eta lan programen bilakaera eta egoerari buruzko informazioa helarazten da.

➤ **Elkarlana beste Erakunde batzuekin**

Kontuan hartu behar dira halaber Akitania-Euskadi Euroeskualde, Euskal Eurohiri, Gipuzkoako Foru Aldundi, Conseil Général des Pyrénées Atlantiques, Eusko Jaurlaritza, Conseil Régional de la Nouvelle Aquitaine, Euskal Hirigune Elkargoa, Ipar Euskal Herri – Aturriko Mugikortasunen Sindikatua, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Pirinioetako Lan Elkartea, Comité Départemental de Tourisme, eta Bidasoako Garapen Agentzia erakundeekin (Bidasoa bizirik) loturiko batzorde eta proiektu desberdinen esparruan gara daitezkeen elkarlanak.

➤ **Komunikazio lanak**

Prentsaurrekoak antolatzen dira eta komunikabideentzako Partzuergoaren jarduerari buruzko prentsa oharrak idazten dira. Berriak eguneratzen dira web ofizialean eta orri horren bidez egiten diren iradokizun eta aipamenei erantzuten zaie. Gainera, Partzuergoko Web atariak bere mugaz gaindiko agendan biltzen du eskualdearen barnean eskaintzen diren aisialdirako jarduera guztiak. Era berean, Partzuergoaren irudi korporatiboa hobetzen saiatuko da, dauden baliabideak aprobetxatuz eta material berriak sortuz. Ekintzetan editatutako ikus-entzunezkoak erabiliko dira, eta sare sozialak informazioa bideratzeko tresna gisa erabiltzeko forma bilatuko da.

➤ **Elkarlana Unibertsitatearekin**

Noizean behin, erakundearen berri ematen da hainbat forotan (prestakuntza-ikastaroak, tailerrak, mintegiak eta topaketak), eta beste erakunde batzuen bisitak antolatzen dira. Praktikaldiak, bekak, tesiak... ere bideratzen dira. Mondragon Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Université de Bordeaux, Université de Toulouse eta Université de Pau et des Pays de l'Adour dira elkarlana bideratzen den erakunde nagusiak, Europako beste eskaera batzuei erantzuteaz gain.

➤ **Proiektu berriak**

Kostu txikia baina mugaz gaindiko esparruan, jada dauden eta mugaz gaindiko bilaka daitezkeen elkarte esparru eta ekitaldietan, eragin handia duten ekintzak bilatzea. Era berean, lan-batzorde desberdinetan lantzen diren eremuetarako, hau da, Kirola, Kultura, Euskara, Turismoa edo beste eremu interesgarri batzuk, finantzaketa iturri berriak bilatzen saiatuko da.

➤ **Ondareari balio handiagoa ematea**

Tresna didaktikoak zabaltzeko, informazio eguneratzeko, aukerak aztertzen ari dira, eta baita ikasleek eskualdea ezagun dezaten laguntzeko jarduerak egiteko aukera ere.



Bidasoa - Txingudi

➤ **Mugaz gaindiko biztanleria**

Mugaz gaindiko biztanleriari, oro har, eta erretiratuekin bereziki hasitako lanari, arreta ematen jarraituko da. Honetaz gain, tokiko aholkularitzarekin eta Bidasoa bizirikekin elkarlanean mugako biztanleek dituzten arazoei erantzuna emateko formulak bilatzen saiatuko gera.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	180.765,06 €
433.01 – Erakundearen Elkarre Publikoei	
Langileria gastuak (soldatak + gizarte seg.) *	150.636,85 €
Ducoureau mantentze-lan gastuak	8.638,50 €
Bidasoa bizirikeko zuzendaritza gastuak	7.624,91 €
Frantsesera, euskarara eta gaztelaniara itzulpenak	4.000,00 €
Komunikazioa (irratia, sareak, kartelak...)	3.200,00 €
Kontabilitate publikoaren programa eta informatika mantentzea	3.200,00 €
Bulegorako materiala eta hornigaiak	1.500,00 €
Dietak eta bidaiak	1.000,00 €
Aholkularitza Juridikoa	800,00 €
Aurre ikusi gabeko eta bestelako gastuak	164,80 €

(*) Atxikitutako langileria: 2 lanpostu tekniko eta lanpostu administratibo 1, guztiak lanaldi osokoak.

Eskura jarritako langileen gastuaren banaketa:

Soldatak:	113.989,30 €
Gizarte Segurantzaz:	36.647,55 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Herritarren partaidetza (924)

Bidasoko Topaketak, "Hiruak bat" laguntzak

Mugaz gaindiko interes bereziko gaien inguruko gizarte eta kultura trukerako jardunaldiak antolatzea eta mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko laguntzen deialdia egitea aurreikusten da, hasiera batean urteko **25.000 euroko** kostuarekin.

Jarduera:

- Bidasoko 3 hirietako erakundearen arteko hausnarketarako eta trukerako topaketak antolatzea (jardunaldiak, foroak...), mugaz gaindiko interes bereziko problematikaren edo gaien inguruan.
- Bidasoko 3 hirietako erakundearen arteko lankidetzak eta jarduerak bateratuak sustatzeko dituzten irtenbideak eta ekimenak buruz trukatzeko eta hausnartzeko.
- "Hiruak Bat" laguntzen deialdia egitea eta mugaz gaindiko interes bereziko proiektuak aukeratzeko.
- Eskakera eta justifikazio espedienteak izapidetzea eta proiektuen egikaritzearen gaineko jarraipena egitea

Programa honen helburua mugaz gaindiko erakunde publiko, asoziatibo eta pribatuak biltzea da, baldin eta gai jakin batean nolabaiteko eskumena edo esperientzia badute eta aldez aurretik mugaz gaindiko interes bereziko arazoren bat antzeman bada.

Gaikako jardunaldien bidez, arazo horien testuingurua definitzeko, egin daitezkeen irtenbideei buruz elkarrekin hausnartzeko eta hori konpon dezaketen baterako jarduerak abian jartzea adostea da helburua.

Laguntzen funtsari dagokionez, hiru hiriak manifestazio komunak egiteko inplikatzeko dituzten mugaz gaindiko proiektuak sustatzen lagundu nahi da.

Honako helburu hauek betetzen dituzten proiektuak hautatzen dira:

- hiru hirietako herritarren arteko ezagutza eta trukea,
- Bidasoaren alde bietako erakundearen sareratzeko eta elkarrekin arteko lankidetzak
- 3 hirietan gizarte, kultura eta elkarte bizitza txertatzea,
- zabalkundea eta parte hartzea Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalerrietan.

Ordainketa egiteko, ezinbestekoa izango da diruz laguntzen diren jarduerak ekitaldi honetan eta datorrenean gauzatzea, hamabi hilabetez gehienez eta, beranduenik, datorren ekitaldiko abenduaren 31rako.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	25.000 €
433.01 – Erakundearen Elkarrekin Publikoak	
Bidasoko Topaketak	5.000 €
"Hiruak bat" laguntzak	20.000 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA
Ekonomia eta zerga politika – Kontu-hartzailetza (931)

Kontu-hartzailetza

Partzuergoak bere gain hartu beharreko Kontuhartzailetza gastuak Partzuergoko Kontuhartzaileak egindako lanen dietei dagozkie, guztira **2.950 euroko** kostua da.

Jarduera:

Kontuhartzailetza lanetan berriz, aurrekontu araudian deskribatzen den bezala programen kudeaketa eta jarduerak gauzatzeak eragiten dituen aurrekontu aldaketekin erlazionatzen da, txosten, likidazio eta kontu orokorra prestatzea barne.

Jarduera guzti hauek Partzuergoaren esanetara dagoen talde teknikoaren laguntzarekin burutzen dira.

I. KAPITULUA. LANGILERIA GASTUAK	2.950 €
140.01 - Dietak	
Kontu-hartzailetza	2.950 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA Ekonomia eta zerga politika – Auditoretza zerbitzuak (931)

Auditoretza zerbitzuak

Partzuergoaren Estatutuen 41. artikularen arabera, kanpo auditoria independente bat egin behar da urteko kontuen eta aurrekontuen gainean, Partzuergoko Kontuhartzaileak bideratu beharreko kontrol eta jarraipen lanez gainera. Programa honetarako aurreikusitako kostua **3.000 eurokoa** da.

Jarduera:

Partzuergoaren aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena aplikatu beharreko araudi eta kontabilitate printzipioetara egokitzen den ikusteko finantza auditoritza egitea eta Partzuergoaren administrazio eta kontabilitate prozedurak hobetzeko Gomendioen Dokumentua egitea. Era berean, kontratazioari buruzko araudiaren betetze-mailari buruzko legezkotasun-txosten bat egitea ere jasotzen da.

Kontratazio hori baterako lizitazioaren bidez egiten da, Irungo Udalaren bitartez.

II. KAPITULUA. GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN	3.000 €
227.99 - Auditoretza	
Auditoretza zerbitzuak	3.000 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA
Ekonomia eta zerga politika – Aurrekontuak, kontabilitatea (931)

Aurrekontuak, kontabilitatea

Partzuergoak bere gain hartu beharreko aurrekontuko eta kontabilitateko gastuak dira Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.ko aurrekontu, kontabilitate... lanetan diharduten Bidasoa bizirikoko langileen soldatak eta gizarte segurantzak, **23.141,35 Euroko** kostua guztira.

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	23.141,35 €
433.01 – Erakundearen Elkarre Publikoei	
Aurrekontu, kontabilitate eta antzeko lanei emanak diren Bidasoa bizirikoko Langileen gastuak (soldatak eta gizarte segurantzak)	23.141,35 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA
Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa – Finantza gastuak (934)

Finantza gastuak

Partzuergoaren eta bere Administrazio Orokorraren programen kudeaketatik etorritako banku operazioei dagozkien finantza gastuen aurreikuspena egitean datza, **500 euroko** kostuarekin.

Jarduera:

Partida hau handitu egin da Irungo Kutxabank erakundeak banku-eragiketei komisio berriak aplikatu dizkielako.

III. KAPITULUA. FINANTZA GASTUAK	500 €
369.01 – Beste finantza gastu batzuk	
Finantza gastuak	500 €



Bidasoa - Txingudi

GASTU PROGRAMEN ARABERAKO SAILKAPENA
Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa – Diruzaintza, bankuen kudeaketa (934)

Diruzaintza, bankuen kudeaketa

"Partzuergoak bere gain hartu beharreko bankuen eta diruzaintza kudeaketaren gastuak dira Bidasoako Garapenerako Agentzia, S.A.ko diruzaintza, bankuen kudeaketa, ... lanetan diharduten Bidasoa biziriketako langileen soldatak eta gizarte segurantzak, **1.601,19 Euroko** kostua guztira."

IV. KAPITULUA. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.601,19 €
433.01 - Erakundearen Elkarre Publikoei	
Diruzaintza, bankuen kudeaketa antzeko lanei emanak diren Langileen gastuak (soldatak eta gizarte segurantzak)	1.601,19 €



Azalpen oharra Bidasoa biziriken kudeaketa gastuei buruz

Jarraian zehazten den formulaz du jatorria Bidasoa biziriken kudeaketa gastuen kalkulak:

1.-

Partzuergoko langileak: 3

Bidasoa bizirikeko langileak: 36

Proportzioa: % 8,33

2.-

Partzuergoaren aurrekontua: 409.662,60 €

Bidasoa biziriken aurrekontua: 4.720.751,27 €

Proportzioa: % 8,68

Ratioa: $8,33 + 8,68 = \% 7,23$

Portzentaje hori (% 7,23) Bidasoa biziriken guztizko aurrekontuari aplikatuta, 34.131,03 €-koa da kudeaketa gastuen zenbatekoa.

2026ko soldatak, Irungo Udalak emandako jarraibideei jarraituz, % 2 igoko direla aurreikusi da 2025arekiko, eta ez da behin-behineko igoerarik aplikatuko 2026an soldatak igotzeko. Igoera hori kontuan hartu da zuzendaritzako, politika ekonomiko eta fiskaleko eta zorraren eta diruzaintzaren kudeaketako gastuak kalkulatzeko.

Era berean, gizarte-aseguruetan % 0,1eko hazkundearen ondoriozko igoerak izan dira, langile guztientzat Belaunaldien arteko Ekitate-Mekanismoaren ondorioz, eta gehieneko oinarrien eta elkartasun-kuota gehigarriaren igoerak gehieneko kotizazio-oinarriaren gainetik dauden soldatentzat.

Nolanahi ere, aurreko urteetan, aurreko ekitaldiko kudeaketa gastuari (31.655,11 eurori) aplikatu zaio zegokion urteko soldata igoera, eta, beraz, 2026an soldatak % 2 igotzea aurreikusten dela kontuan izanik, ondoriozko zenbatekoa 32.288,21 euro da. Soldaten behin-behineko gastua ehuneko hauetara egokituz gero, berriz, 32.367,45 euro da.

Horrenbestez, barruan sartu dira honako hauei dagozkien gastu atalak:

- Kudeaketa gastuen barruan, Zuzendaritzaren soldaten guztizko kostuaren % 7 sartu da.
- Politika ekonomiko eta fiskalaren barruan, Departamentu Ekonomiko Finantzarioko langileen soldaten kostuaren % 30 eta Giza Baliabideetako langileen soldaten kostuaren % 10 sartu dira _ kontabilitateaz, justifikazioez eta abarrez arduratzen dira langileok _
- Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketaren barruan, Departamentu Ekonomiko Finantzarioaren eta Giza Baliabideen koordinatzailearen soldataren kostuaren % 2 sartu da.



Bidasoa - Txingudi

Zenbateko hauek dira emaitza:

• Zuzendaritza gastuak (administrazio orokorra)	7.624,91 €
• Politika ekonomiko eta fiskala (Departamentu Ekonomiko Finantzarioko administrarien soldaten kostuaren % 30 eta Giza Baliabideetako administrarien soldaten kostuaren % 10)	23.141,35 €
• Zorraren eta diruzaintzaren kudeaketa (Departamentu Ekonomiko Finantzarioaren eta Giza Baliabideen koordinatzailearen soldadari egotzitako kostuaren gainontzeko partziala)	1.601,19 €



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

MEMORIA

**21/2003 Foru Arauaren 6.1d)
eta 6.3a) artikulak**



Bidasoa - Txingudi

1.- EKONOMIA EGOERA

Partzuergo honen egoera egungo aldi ekonomikoaren bilakaerarekin bat etor daiteke, aurreko ekitaldiko jarduera-aurreikuspenei eutsiz eta dagozkion soldata-igoerak barne hartuta.

2.- FINANTZA EGOERA

Aurreikusitako baliabideak halako arintasunez eta aldian-aldian biltzen direnez, gastuak garaiz ordaintzeko aukera ematen du, eta horrenbestez, espero da urtean zehar noizean behin baino ez gertatzea tentsioak edo desfaseak Diruzaintzan.

3.- AURREKONTUA PRESTATZEKO ORDUAN KONTUAN HARTUTAKO IRIZPIDEAK

Egin diren proposamenetatik jasotako informazioa hartu da oinarritzat 2026ko Aurrekontu proiektua prestatzeko.

4.- AURREKONTUAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK

2026 ekitaldiko Aurrekontuak, Erakundearen ekonomia-jarduerarako programa den aldetik, Partzuergoaren esparruan mugaz gaindiko lankidetza indartzeko ekintzak sustatzea du helburu, aiantzi gabe gastu arruntari eutsi egin behar zaiola eta kontrolatu eta arrazionalizatu egin behar dela, dauden baliabideak optimizatu ahal izateko.

5.- AURREKONTUAREN EDUKIA

2026ko aurrekontu-ekitaldirako Partzuergoaren Aurrekontua **LAUREHUN ETA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (409.662,60€)** da.

Hala sarreraren nola gastuen aurrekontuei dagokienean, kapitulu bakoitzaren barnean dauden kontsignazio garrantzitsuenak xehe adierazten dira ondoren.

5.1.- Sarreraren Egoera

Udalen ekarpenek aurrekontuaren guztizkoaren %95,55 osatzen dute, eta honako portzentaje hauen arabera banatzen dira Partzuergora bildutako Udalerrien artean:

Irungo Udala	%50	195.720,00 €
Hondarribiko Udala:	%25	97.860,00 €
Hendaiaiko Udala:	%25	97.860,00 €



Bidasoa - Txingudi

5.2.- Gastuen Egoera

a)	I. Kapitulua. LANGILEEN GASTUAK		5.900,00 €
	- Idazkaria eta Kontuhartzailea	5.900,00 €	
b)	II. Kapitulua. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN		3.000,00 €
	- Kontu-ikuskapena	3.000,00 €	
c)	III. Kapitulua. FINANTZA GASTUAK		500,00 €
	- Beste finantza gastu batzuk	500,00 €	
d)	IV. Kapitulua. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK		400.262,60 €

Honako hauei transferitu beharreko kopuruak jasotzen ditu:

- Bidasoa-Bizirik erakundeari, Bidasoa Bizirik eta Partzuergoaren artean sinaturiko Elkarlanerako Hitzarmenaren arabera, hainbat programa aurrera eramateko erakunde horrek izango dituen gastuak finantzatzeko. Programa horiek xehe adierazten dira honekin batera doazen Gastuen Egoeran eta Transferentzien Eranskinean.
- Bidasoako Erakustazoka, S.A. elkarteari, elkarte horren akzioetan parte hartzeagatik Partzuergoari dagozkion gastu arruntak ordainketa kontzeptuan.
- Baiona-Donostia Euskal Eurohiriari, Partzuergoaren Atxikimendu kontzeptuan Eurohiria garatzeko agentziaren erabaki eta kudeaketa organoetan parte hartu ahal izateko.

Iruten, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO
AURREKONTU OROKORRA

TRANSFERENTZIEN ERANSKINA
21/2003 Foru Arauaren 6.1g) artikulua

TRANSFERENTZIA ARRUNTAK:

Onuraduna	Kontzeptua	Euroak
Bidasoa-Bizirik	Hirigintza. Herriguneetarako sarbidea	12.000,00
	Ingurumena babestea eta hobetzea	2.500,00
	Kulturaren sustapena	45.000,00
	Euskara	27.000,00
	Kirola sustatzea eta bultzatzea	48.000,00
	Informazio turistikoa, turismoaren sustapena	29.500,00
	Administrazio Orokorreko Gastuak	180.765,06
	Herritarren parte-hartzea	25.000,00
	Politika ekonomikoa eta fiskala	23.141,35
	Zorren eta diruzaintzaren kudeaketa	1.601,19
<i>Transferentzia arruntak guztira</i>		394.507,60 =====
Bidasoako S.A.	Erakustazoka Gastu Arruntak FICOPA	3.005,00
<i>Transferentzia arruntak guztira</i>		3.005,00 =====
Baiona-Donostia Eurohiria	Euskal Eurohiriari atxikipena	2.750,00
<i>Transferentzia arruntak guztira</i>		2.750,00 =====



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

MUGAZ GAINDIKO KIROL EKITALDIETARAKO LAGUNTZA IZENDUNAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK



Bidasoa - Txingudi

1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Oinarri hauetan mugaz gaindiko programa eta jardueretarako laguntza izendunak eskatzeko, emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren edukian oinarrituta, eta lege horren zehaztapenak oinarri hauetan arautzen ez diren alderdi guztietan aplikatu behar dira.

2- XEDEA

Oinarri hauen xedea da ekitaldi honetan zehar Irun, Hondarribia eta Hendaiako entitateei laguntza izendunak ematea eta horietarako sarbidea arautzea **MUGAZ GAINDIKO KIROL EKITALDIAK** egiteko. Mugaz gaindiko ekitaldiak izanik zailtasun handiagoak dakartzate eta kostu erantsi bat, baina aldi berean lagundu egiten dute hiru hirietako biztanleek elkar ezagutzen eta elkar trukatzeko, Bidasoaren bi aldeetako erakundeak sarean jartzen eta lankidetzan aritzen, eta bizitza soziala, kulturala eta asoziatiboa Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoa osatzen duten hirietan integratzen.

3- ESKAERAK

1- Indarrean dagoen legediaren arabera eratutako Klub, Erakunde eta Elkarateek eskatu ahal izango dituzte oinarri hauen bidez arautzen diren diru-laguntzak. Elkarate horiek dagozkien erregistroetan inskribatuta egon behar dute, eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoa osatzen duten hiru hirietako batean izan behar dute egoitza soziala.

2- Erakunde onuradunaren betebeharrak dira:

- ⇒ Diru-laguntzaren xede den jarduera antolatzea eta burura eramatea.
- ⇒ Jarduera honetatik eratorritako eskuorri, afixa, seinale, komunikazio eta informazio guztietan, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiandiko Partzuergoak jardueraren antolakuntzan duen lankidetzat eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren baterako finantzaketa agerian geratzen direla bermatzea.
- ⇒ Hiru hirietan ahalik eta parte hartze eta oihartzun handiena izatea bermatzea.
- ⇒ Bidasoaren alde bietan sustatutako eta antolatutako ekitaldian Partzuergoko hiru hizkuntza ofizialak erabiltzea (gaztelania, euskara, frantsesa).

3-. Ezin izango dituzte oinarri hauetan araututako diru-laguntzak jaso:

- ⇒ Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.
- ⇒ Konstituzioak bermatutako eskubideak (14. artikulua: Diskriminazioa sorleku, arraza, sexu, erlijio edo iritzi zioak tarteko) urratzen dituzten elkarate edo entitateetatik etorritako proposamenak.
- ⇒ Ez dira aintzat hartuko Bidasoa Txingudi Mugaz-gaiandiko Partzuergoaren aurreko bi ekitaldietako deialdietan diru-laguntzen onuradun izanik, lehendik jasotako diru-laguntzei dagozkien gastuak aurreikusitako epeetan eta behar bezala justifikatu ez dituzten elkarate edo entitateetatik etorritako proposamenak.



Bidasoa - Txingudi

4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak ez dira bateragarriak Irun, Hondarribia eta Hendaiako Udalek xede berari begira emandako beste udal laguntzekin. Aitzitik, bateragarriak izango dira helburu bererako beste Administrazioek, erakunde publiko edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak emandako diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA

Diru-laguntzaren xede den jardueraren kostua da oinarri hauek araututako diru-laguntzen muga.

Horretarako, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren ekitaldi honetako aurrekontuan 24.000 euro daude esleituta adostutako banaketarekin bat etorrira, eta lankidetzat hitzarmen bat sinatuko da entitate onuradun bakoitzarekin.

Beste laguntza batzuk jasoz gero, laguntza guztien baturak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu. Bestela, oinarri hauen kontura emandako diru-laguntza gutxituko da dagokion kopuruan.

6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

Diru-laguntzak eskatu nahi dituztenek behar dituzte, eskabidea aurkezteko, jarraian aipatzen den dokumentazioa consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman [helbidea: Ducoureau jauregia, Hendaiak 8, 20301 Irun], astelehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, **DAGOKION JARDUERA HASI BAINO HAMABOST EGUN NATURAL LEHENAGO GUTXIENEZ.**

- ⇒ Entitatearen eta harremanetarako pertsonaren datuak identifikatuko diren instantzia.
- ⇒ Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eta erakundearen erregistroaren fotokopia edo baliokidea.
- ⇒ Ogasunarekiko betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak, egoitza Gipuzkoan duten erakundeek kasuan instantzian informazio hori zuzenean eskuratzeko baimena ematen denean izan ezik.
- ⇒ Programaren deskribapena eta sarreraren eta gastuen aurrekontua.
- ⇒ Helburu bera duten beste diru-laguntza batzuk eskatu diren ala ez adierazten duen adierazpena.
- ⇒ Hala badagokio, klubaren arteko akordio protokoloa edo baliokidea.
- ⇒ Kontuaren titulartasun agiria.
- ⇒ Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako egoera bakar batean ere ez egotearen adierazpena.



Bidasoa - Txingudi

⇒ BEZ berreskuragarriari edo berreskuraezinari buruzko adierazpena.

Ez da onartuko eskuz idatzitako eskaerarik.

Instrukzio organoak egiaztatzen badu aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan exijitutako betebeharrak betetzen ez dituela, erakunde edo pertsona eskatzaileari hamar eguneko epea emango dio akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta, hala egiten ez badu, eskaera aintzat hartuko ez dela ohartaraziko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Dokumentazioa aurkezten ez bada galdu egingo da diru-laguntzaren onuradun izateko aukera. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutuz gero, galdu egingo da diru-laguntza horiek eta, hala badagokio, etorkizuneko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea.

7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA

Laguntza izendunaren xede izango diren ekitaldiak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen bileran adostuko dira, eta bilera horretan egindako proposamena ikusita, Partzuergoko Lehendakariak ebatziko du, hala badagokio, diru-laguntzaren behin betiko emakida, Instrukzio Organoak aurkeztutako txostenetan oinarriturik.

Eskaera aurkezteak ez du berez diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berez duen hautazko izaera izango du emakidak, eta diru-laguntza emateko, ezinbestekoa izango da dagokion aurrekontu atala izatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Partzuergoaren Kirol Programarako egindako ekarpena lortzea, bi erakundeek sinatutako hitzarmenari jarraiki.

8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

Bidasoko Garapen Agentzia, S.A.ri (Bidasoa bizirik) dagokio oinarri hauetatik eratorritako laguntzak emateko kudeaketa eta izapidetze lanak bideratzea eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoaren izenean eta kontura laguntzak ematea eta banatzea.

9- INSTRUKZIO ORGANOA

Erakunde Laguntzaileak Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoaren esku jarritako teknikari taldeari dagokio emandako laguntzen argitalpena, emakida, jarraipena eta kontrola izapidetzea eta dagozkion espedienteak egitea.

Instrukzio organo honek aintzat hartuko du Partzuergoko Kirolaren Lan Mahaian parte hartzen duten udal zerbitzuen aholkularitza.



Bidasoa - Txingudi

10- DIRULAGUNTZAK ORDAINTEA

Dagozkion izapidetze administratiboak egin ondoren, erakunde laguntzaileak ordainduko ditu diru-laguntzak. Diru-laguntza horiek behin bakarrik ordainduko ditu, behin Partzuergoari memoria eman ondoren.

Hala eta guztiz ere, egoki irizten denean, onartutako diru-laguntzaren zenbateko osoaren % 50 ordaindu ahal izango da, gehienez ere. Aurrerakin gisa ordainduko da, Partzuergoko Lehendakartzaren ebazpen bidez diru-laguntzak esleitzeko ebazpena eman ondoren, eta entitate onuradunak ez du egikaritzeko berme finantzarioak aurkezteko obligazioa izango.

Onartzen den diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa edo % 50eko bigarren ekarpena ordaintzeko entitate jasotzaileek behar dute jarraian aipatzen den dokumentazioa consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman [helbidea: Ducoureau jauregia, Hendaia 8, 20301 Irun], astelehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, **DAGOKION JARDUERA BUKATU ETA BI HILABETEAN.**

- ⇒ Dirulaguntza justifikatzeko instantzia, Partzuergoaren egoitzan eskuragarri dagoen justifikazio ereduarekin bat etorrira.
- ⇒ Memoria osoa, oinarri hauetan adierazitako irizpide eta baldintzekiko errespetua justifikatuz.
- ⇒ Egindako gastuen egiaztagiria (fakturen edo ordainketa agirien kopiak), diruz lagundutako jardueraren garapenak eragindako proiektuaren gastu guztiei buruzkoak.
- ⇒ Jarduera bera egikaritzeko jasotako beste sarrerei edo laguntzei buruzko adierazpena.
- ⇒ Gastuak eta sarrerak justifikatzeko kontua.
- ⇒ Ekitaldiaren irudiak eta ikus-entzunezkoak.

Baldintza hauek bete behar dituzte aurkeztu beharreko agiriek:

- ⇒ Klubaren, Entitatearen edo Elkarrearen identifikazio garbia.
- ⇒ Kontratistaren edo hornitzailearen identifikazioa.
- ⇒ Fakturaren data.
- ⇒ Hornidura/zerbitzua eragin duen jarduera.
- ⇒ Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapena.
- ⇒ Faktura ezarri ezin bada, onuradunaren izena eta NANA zehazten dituen gastu ohar bat idatziko da.

Hauexek dira diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:

- ⇒ Partzuergoari laguntzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko eskatzen duen guztia ematea.
- ⇒ Diru-laguntza jasotzerakoan aldaketa objektibo edo subjektiboren bat gertatzen bada, Partzuergoari jakinaraztea.
- ⇒ Partzuergoari jakinaraztea laguntza harez gain helburu bererako beste laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasotzen baditu, sektore publikokoak zein pribatukoak.
- ⇒ Diru-laguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.



Bidasoa - Txingudi

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da diruz lagundutako jardueraren izaerarekin guztiz bat datorrena, behar-beharrezkoa dena eta deialdi honetan aipatzen den ekitaldiaren barruan egin eta ordaintzen dena.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, ordaintzeke egon arren, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurreko bi hilabeteetan egindako fakturak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira:

- ⇒ Ekitaldirako kontratatutako edo eskuragarri jarritako langileen gastuak, emandako diru-laguntzaren % 50 gehienez (orduко gehieneko kostua: 35 euro norberaren eskura jarritako langileen kasuan, eta 69 euro kanpoko zerbitzuaren bidez kontratatzen bada)
- ⇒ Proiektuaren komunikazio eta kartelgintza gastuak
- ⇒ Garraio, dieta edo joan-etorri gastuak, emandako diru-laguntzaren % 10 gehienez
- ⇒ Kanpo zerbitzuak emateko gastuak
- ⇒ Itzulpen eta interpretatze gastuak
- ⇒ Erabili beharreko materialak erosteko gastuak
- ⇒ Itxiera ekitaldiko catering, sari edo antzeko gastuak, emandako diru-laguntzaren % 10 gehienez
- ⇒ Proiektuaren egikaritzeari lotutako gastu orokorrak (telefonía, inprimaketak, zigiluak, mezularitza, papergintza...), emandako diru-laguntzaren % 5 gehienez

Oharra: Oinarri hauen xede diren laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako jardueraren % 100 gauzatzeko beharrezkoak diren prestazioak hirugarrenekin kontratatuz gauzatzea onartuko da.

Ez dira justifikagarritzat onartuko:

- ⇒ Erakunde eskatzailearen berezko administrazio, langile edo antolaketa kostuak, jarduerarekin zerikusirik ez dutenak.
- ⇒ Zuzeneko onuradunaren nominak pertsona fisikoek kasuan, edo Zuzendaritza Batzordeko kideek erakunde eta pertsona juridikoen kasuan.
- ⇒ Ostalaritza zerbitzuei dagozkien bazkarien, afarien eta bestelakoek kostuak, salbu eta diruz lagundutako jardueran parte hartzen dutenekin lotuta sortutakoak.
- ⇒ Faktura edo ordainagiria egitea eragin duten jarduerari dagozkien gastu oharrak.
- ⇒ Zuzendaritza Batzordeko kideak erakunde onuradunarekin partekatzen dituzten beste erakunde batzuek egindako fakturak.

Erakunde onuradunak ez badu BEZ berreskuragarririk, kostuak BEZa barne dela kontabilizatuko dira; bestela, BEZik gabe kontabilizatuko dira.

Horregatik guztiagatik, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoak oinarri hauetan izendatutako Instrukzio Organoak egin ditzakeen ikuskaritza lanek xede izango da proiektuaren ardura duen erakundea edo pertsona.



Bidasoa - Txingudi

11- DIRULAGUNTZEN KONTROLA

Instrukzio Organoak, Zuzendaritza Batzordeak eta Partzuergoko Presidenteak egoki iritzitako egiaztapen guztiak egiteko eskubidea izango dute, datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzen erabilera zuzena egiaztatzeko.

12- EZ BETETZEA

Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze interesa ordaintzeko eskatuko da, hala badagokio, dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrera, honako kasu hauetan:

- ⇒ Diru-laguntza emateko akordioak ezarritako epeak betetzen ez badira
- ⇒ Diru-laguntza emateko xedea betetzen ez bada.
- ⇒ Diru-laguntza lortzen bada horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

Era berean, oinarri hauei eta horien arabera emandako laguntzei aplikagarriak zaizkie Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan arau hausteei eta zehapenei buruzko xedapenak, eta Partzuergoko Lehendakariak abiatu eta ebatzi behar ditu dagozkion espedienteak.

13- INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan eta emandako laguntzen gauzatzearen eta garapenaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Partzuergoko Presidenteak ebatziko du, Zuzendaritza Batzordeak, instrukzio-organoak aurkeztu ondoren, egindako txostenak ikusita.

Irunen, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

LAGUNTZA IZENDUNEN ERANSKINA

Onuraduna	Kontzeptua	Euroak
BIDASOA ITZULIA ELKARTEA	Bidasoa Itzulia	17.800,00
BIDASOA ATLETIKO TALDEA	Txingudi Korrika	4.400,00
IZURDE URPEKO EKINTZAK	Bidasoa Ibaiaren jaitsiera Hegatsekin	1.800,00
Guztira		===== 24.000,00

Diru-laguntza izendun hauek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Programarako 11.665 euroko ekarpena lortzearen baldintzapean daude, eta beraz, kopuru hori lortzen ez bada, aipatutako diru-laguntzak proportzioan murriztuko dira.



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

**TOKIKO KOMUNIKABIDEEN ESPARRUAN
EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK
ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK**



Bidasoa - Txingudi

1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen III. kapituluko 25.2 m) artikulua Udalei esleitzen dizkie kultura eta kirol jarduerak edo instalazioak garatzeko eskumenak.

Hondarribia, Irun eta Hendaiako Udalek 1999ko urriaren 22an Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa osaturik, eta Partzuergoaren Estatutuen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta, aipatutako Udalek eskumenak ematen dizkiote Partzuergoari besteak beste kultura ekitaldi partekatuak egin ditzan, eta kulturaren esparru horretan helburuetako bat du hizkuntzak ikastea, hobetzea eta garatzea ahalbidetuko duten egitura pedagogikoak sortzea eta kudeatzea.

Testuinguru horretan, Partzuergoak euskarari zabalkundea ematen dioten lanak sustatzeko ekintzak eramaten ditu burura, horretan lan egiten duten entitateei edo enpresei diru-laguntzak emanez.

Horrexegatik ezartzen dira tokiko komunikazioen esparruan euskara sustatzeko diru-laguntzen emakida arautzen duten oinarriak, bertan arautzen da adierazitako xedea duten diru-laguntzak eskatzeko, emateko eta ordaintzeko prozedura, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren edukiaren arabera, eta lege horretan xedatutakoak izango dira aplikagarri oinarri hauek arautzen ez duten guztian.

2- XEDEA

Oinarri hauen xedea da tokiko komunikabideen eremuan pertsona fisikoei, enpresei edo elkartei euskara sustatzeko diru-laguntzak norgehiagoka bidez emateko modua arautzea, baldin eta sustapen proiektu horiek 3 udalerrietan, Irunen, Hondarribian eta Hendaian zabaltzen badira eta eskualdeko informazioaren edukiak argitaratzen badituzte, oinarrietan araututako irizpideen eta baldintzen arabera.

<i>Ikus-entzunezkoak</i>	<i>Argitalpenak</i>	<i>Aldizkari digitalak</i>
Gutxienez 30 minutuko iraupera izango duen proiektu espezifikoak, araututako irizpideak eta baldintzak betetzen dituenak.	Araututako irizpideen baldintzen arabera	Araututako irizpideen baldintzen arabera

3- ESKAERAK ETA BALDINTZAK

1- Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte kazetaritza lanak egiten dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek, egoitza Irunen, Hondarribian edo Hendaian baldin badute, eta oinarri hauek ezarritako baldintzak betetzen baldin badituzte.

2. Bazterketak

Honako kasu hauek daudenak oinarri hauen esparrutik kanpo geratzen dira:



Bidasoa - Txingudi

- a) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 3 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak.
- b) Ez dira aintzat hartuko Konstituzioak bermatutako eskubideak (14. artikulua: Diskriminazioa sorleku, arraza, sexu, erlijio edo iritzi zioak tarteko) urratzen dituzten elkarte edo entitateetatik etorritako proposamenak.
- c) Ez dira aintzat hartuko Bidasoa Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren aurreko bi ekitaldietako deialdietan diru-laguntzen onuradun izanik, lehendik jasotako diru-laguntzei dagozkien gastuak aurreikusitako epeetan eta behar bezala justifikatu ez dituzten elkarte edo entitateetatik etorritako proposamenak.

4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak ez dira bateragarriak Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko Udalek xede berari begira emandako beste udal laguntzekin. Aitzitik, bateragarriak izango dira helburu bererako beste Administrazioek, erakunde publiko edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak emandako beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

Beste laguntza batzuk jasoz gero, laguntza guztien baturak ezin izango du diruz lagundutako jardueren kostua gainditu. Bestela, oinarri hauen kontura emandako diru-laguntza gutxituko da dagokion kopuruan.

5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA

Diru-laguntzaren xede den jardueraren kostua da oinarri hauek araututako diru-laguntzen muga, eta beste laguntza publikoei batuta ezin izango ditu gainditu jardueraren kostuak. Beraz, diru-laguntzaren zenbatekoaren muga maximoa onuradunaren alde murriztuko litzateke superabita izanez gero.

Oinarri hauen ondorioei begira, 7.000 euroko aurrekontu kopurua dago esleitura Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aurrekontuan. Beraz, zenbateko hori da diru-laguntzen kontzeptuan eman daitekeen kopuru maximoa, betiere kanpotiko diru sarrerei buruzko aurrekontu aurreikuspenak betetzen badira eta kontuan izanik aldaketak egin daitezkeela dagozkion aurrekontuetan.

6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

Diru-laguntza hauek eskuratzeko interesa duten pertsonak jarraian adierazten den eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak emango duen ereduaren arabera dokumentazioa eta eranskinak behar bezala beteta egin behar dute eskaera. Dokumentazio hori consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali behar da muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman behar da [helbidea: Ducoureaux jauregia, Hendaia 8, 20301 Irun], astelehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, dagokion iragarkia GAO-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita gehienez ere hilabete bateko epean, honako dokumentu hauekin batean:



Bidasoa - Txingudi

- a) NAN-aren fotokopia eta, komunikabide baten ordezkari gisa jardunez gero, ordezkaritza hori egiaztatzen duen dokumentazioa.
- b) Komunikabidearen ezaugarriei buruzko txostena.
- c) Gastuen eta sarreraren txosten zehatza, azpiegiturako gastuak, langileenak, eta beste gastu batzuk eta diru-laguntzen, ekarpenen, publizitateagatik sarreraren eta abarren sarrerak jasoko dituen. Partzuergoari eskatzen zaion zenbatekoa ere zehaztuko da.
- d) Ogasunarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, eta besteren konturako langileak baditu, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak erregularak direla egiaztatu beharko du.
- e) Argitalpenen kasuan, indarrean den urtean zehar argitaratutako aleak.
- f) Ikus-entzunezkoen kasuan, a), b), c) eta d) ataletan zehaztutakoez gain, komunikabidean urtean zehar euskarari emandako tratamendua azaltzeko txostena, gutxienez honako alderdi hauek zehaztuz:
 - Osorik edo hein batean euskaraz egindako saio guztien zerrenda, saioaren izena, eguna, emisio ordua eta iraupena adieraziz eta euskaraz emandako zatia iraupena adieraziz.
 - Euskaraz emandako programazio denboraren bolumena guztizko programazioarekiko.
- g) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 13.2 eta 3 artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- h) Helburu bererako beste diru-laguntzarik eskatu den ala ez adierazten duen adierazpena.
- i) BEZ berreskuragarriari edo berreskuraezinari buruzko adierazpena.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan exijitutako betebeharrak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta, hala egiten ez badu, eskaera aintzat hartuko ez dela ohartaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Dokumentazioa aurkeztu ez bada galdu egingo da diru-laguntzaren onuradun izateko aukera. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutuz gero, galdu egingo da diru-laguntza horiek eta, hala badagokio, etorkizuneko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea.

Ez da onartuko eskuz idatzitako eskaerarik.

7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA ETA DIRULAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA

Eskabideak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak aztertuko ditu, Euskara Batzordearen oniritziarekin prestatutako organo instruktoreak txosten teknikoak aurkeztu ondoren, eta



Bidasoa - Txingudi

Partzuergoko Presidenteari dagokio, bere proposamena ikusita, diru-laguntza ebazpen bidez ematea ebaztea.

Horretarako, eskabideak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira: komunikabidearen tirada edo irismena eta Bidasoa-Txingudiko eskualdea osatzen duten 3 hirietan duen parte hartze maila eta oihartzuna, maiztasuna, zuzentasuna hizkuntzaren erabileran eta euskararen presentziaren proportzioa.

Irizpideen xehetasunak deialdiaren ebazpenari atxikita daude eranskin gisa.

Instrukzio-organoak proposatu ahal izango du, kasuaren arabera, diru-laguntzak erabat edo zati batean eman gabe uztea. Eskaera aurkezteak berez ez du diru-laguntza jasotzeko eskubidea ematen.

8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

Bidasoko Garapen Agentzia, S.A.ri (Bidasoa bizirik) dagokio oinarri hauetatik eratorritako laguntzak emateko kudeaketa eta izapidetze lanak bideratzea eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren izenean eta kontura laguntzak ematea eta banatzea. Hori guztia Partzuergoaren jarduerari eta programei dagokien lankidetzaren hitzarmenean oinarrituta.

9- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA GASTUAREN FROGAGIRIAK

Onartutako laguntzaren % 100 diru-laguntzak esleitzeko Partzuergoko Presidentearen Ebazpena eman ondoren ordainduko da, eta behin entitate hartzaileek honako dokumentazio hau consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali behar da muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman behar da [helbidea: Ducoureaux jauregia, Hendaia 8, 20301 Irun], astlehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik:

1. Diru-laguntza justifikatzeko instantzia, Partzuergoaren egoitzan oinarri hauekin batera eskuragarri dauden justifikazio ereduak bat etorruta (1. Eranskina).
2. Egindako gastuaren frogagiriak (diruz lagundutako jardueraren garapenak eragindako gastuei dagozkien fakturen eta ordainagirien kopiak), eta gastuak eta sarrerak justifikazio kontua.
3. Memoria osoa, oinarri hauetan adierazitako irizpide eta baldintzekiko errespetua justifikatuz, diruz lagundutako jardueraren irudiekin, argitalpenekin eta ikus-entzunezkoekin batera.
4. Beste diru-sarrera batzuk jasotzeko buruzko adierazpena.

Aurkezteko gehieneko epea honako hau izango da:

- a. **30 egun natural**, jarduera amaitu ondoren;
- b. edo **30 egun natural**, diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, jarduera ebazpena baino lehen amaitu bada;
- c. Nolanahi ere, deialdiaren urtearen hurrengo urteko **urtarrilaren 31 baino lehen**.



Bidasoa - Txingudi

Hauexek dira diru-laguntzen onuradunen betebeharrak:

- Partzuergoari laguntzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko eskatzen duen guztia ematea.
- Diru-laguntza jasotzerakoan aldaketa objektibo edo subjektiboren bat gertatzen bada, Partzuergoari jakinaraztea.
- Partzuergoari jakinaraztea laguntza harez gain helburu bererako beste laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasotzen baditu, sektore publikoak zein pribatukoak.
- Diru-laguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak diruz lagundutako proiektua finantzatzeko funts publikoak lortu dituela zabaltzea, haren izena eta logotipoa agerkarietan eta web atarietan nabarmenduta txertatuz, edo irati-emanaldien hasierako eta amaierako iragarkien bidez.

Onuradunak eskabidean zehaztutakoaren arabera eramango du burura diru-laguntzaren xede den jarduera, eta jarraian adierazten diren irizpideak beteko ditu:

- Jardueraren edukiak euskaraz izan beharko du osorik edo zati batean, eta programazioaren edo edukiaren % 50, gutxienez. Hedabide hirueledunen kasuan, euskarazko programazioak beti izan behar du presentzia, gutxienez guztizkoaren herena.
- Jarduerak urtean aldizkakotasun jakin bat izan beharko du. Programazioak erregularra izan behar du, eta programa autonomoa edo beste programa bateko atala izan behar du.
- Entzunaldi potentzialaren edo hedabidearen aleen tiradaren erdia, gutxienez, Irunen, Hondarribian eta Hendaian kokatu beharko da; horretarako, komunikabideetan eskuragarri dauden estatistika-zerbitzuen bidez justifikatu beharko da.

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da diruz lagundutako jardueraren izaerarekin guztiz bat datorrena, behar-beharrezkoa dena eta deialdi honetan aipatzen den ekitaldiaren barruan egin eta ordaintzen dena.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, ordaintzeke egon arren, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurreko bi hilabeteetan egindako fakturak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira:

- ⇒ Ekitaldirako kontratatutako edo eskuragarri jarritako langileen gastuak, emandako diru-laguntzaren % 50 gehienez (orduko gehieneko kostua: 35 euro norberaren eskura jarritako langileen kasuan, eta 69 euro kanpoko zerbitzuaren bidez kontratatzen bada)
- ⇒ Proiektuaren komunikazio eta kartelgintza gastuak
- ⇒ Garraio, dieta edo joan-etorri gastuak, emandako diru-laguntzaren % 10 gehienez
- ⇒ Kanpo zerbitzuak emateko gastuak



Bidasoa - Txingudi

- ⇒ Itzulpen eta interpretatze gastuak
- ⇒ Erabili beharreko materialak erosteko gastuak
- ⇒ Itxiera ekitaldiko catering, sari edo antzeko gastuak, emandako diru-laguntzaren % 10 gehienez
- ⇒ Proiektuaren egikaritzeari lotutako gastu orokorrak (telefonía, inprimaketak, zigiluak, mezularitza, papergintza...), emandako diru-laguntzaren % 5 gehienez

Oharra: Oinarri hauen xede diren laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako jardueraren % 100 gauzatzeko beharrezkoak diren prestazioak hirugarrenekin kontratatuz gauzatzea onartuko da.

Ez dira justifikagarritzat onartuko:

- ⇒ Erakunde eskatzailearen berezko administrazio, langile edo antolaketa kostuak, jarduerarekin zerikusirik ez dutenak.
- ⇒ Zuzeneko onuradunaren nominak pertsona fisikoen kasuan, edo Zuzendaritza Batzordeko kideenak erakunde eta pertsona juridikoen kasuan.
- ⇒ Ostalaritza zerbitzuei dagozkien bazkarien, afarien eta bestelakoen kostuak, salbu eta diruz lagundutako jardueran parte hartzen dutenekin lotuta sortutakoak.
- ⇒ Faktura edo ordainagiria egitea eragin duten jarduerari dagozkien gastu oharrak.
- ⇒ Zuzendaritza Batzordeko kideak erakunde onuradunarekin partekatzen dituzten beste erakunde batzuek egindako fakturak.

Erakunde onuradunak ez badu BEZ berreskuragarririk, kostuak BEZa barne dela kontabilizatuko dira; bestela, BEZik gabe kontabilizatuko dira.

Horregatik guztiagatik, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak oinarri hauetan izendatutako Instrukzio Organoak egin ditzakeen ikuskaritza lanen xede izango da proiektuaren ardura duen erakundea edo pertsona.

10- DIRULAGUNTZEN KONTROLA

Instrukzio Organoak, Zuzendaritza Batzordeak eta Partzuergoko Presidenteak egoki iritzitako egiaztapen guztiak egiteko eskubidea izango dute, datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzen erabilera zuzena egiaztatzeko.

11- EZ BETETZEA

Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze interesa ordaintzeko eskatuko da, hala badagokio, diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrera, honako kasu hauetan:



Bidasoa - Txingudi

- a) Jasotako diru-laguntzak osorik edo zati batean Oinarri hauetan aurreikusi ez diren jarduerak egiteko erabiltzen badira.
- b) Diru-laguntza lortzen bada horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.
- c) Oinarri hauetan edo, hala badagokio, diru-laguntzak emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak betetzen ez badira.
- d) Oinarri hauek edo diru-laguntza emateko akordioak ezarritako epeak betetzen ez badira.

Era berean, oinarri hauei eta horien arabera emandako laguntzei aplikagarriak zaizkie Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan arau hausteei eta zehapenei buruzko xedapenak, eta Partzuergoko Lehendakaritzak abiatu eta ebatzi behar ditu dagozkion espedienteak.

12- INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan eta emandako laguntzen gauzatzearen eta garapenaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Partzuergoko Presidenteak ebatziko du, Zuzendaritza Batzordeak, instrukzio-organoak aurkeztu ondoren, egindako txostenak ikusita.

Iruten, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

MUGAZ GAINDIKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO LAGUNTZEN EMAKIDA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK - HIRUAK BAT



Bidasoa - Txingudi

1- KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Apirilaren 2ko 7/85 Legearen III. kapituluko 25.2 m) artikulua Udalei esleitzen dizkie kultura eta kirol jarduerak edo instalazioak garatzeko eskumenak.

Hondarribia, Irun eta Hendaiako Udalek 1999ko urriaren 22an Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa osaturik, eta Partzuergoaren Estatutuen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, aipatutako Udalek eskumenak ematen dizkiote Partzuergoari turismo, kultura, gizarte eta garapen ekonomikoaren arloetan baterako ekimenak gauzatzeko.

Testuinguru horretan, balioa eman nahi zaio mugaz-gaindiko kolaborazio kontzeptuari, batzen, ordezkatzeko eta identifikatzeko gaituen elementutzat harturik. Kontzeptu hori eragilea izan daiteke diziplina askotako proiektuak eraikitze, proiektu global batean baita jatorria. Era berean, bide bat eta ekimen bat izan daiteke hiru udalerrietako batean dauden elkarteak edo enpresak harremanetan jartzeko eta hiru hirien artean baterako proiektuak egiteko, edo esparru asoziatiboetan lan egiteko eta/edo maila profesionaleko jarduerak proposatzeko. Mugaz gaindiko kultura eta identitate partekatua sustatu nahi da, hurbileko inpaktua duten proiektu zehatzen bidez: mugaz gaindiko errealitatea aniztasunaren barruko batasunaren mezu gisa.

Horrexegatik proposatzen da mugaz gaindiko proiektuak Partzuergoaren eskumenean esparruan sustatzeko diru-laguntzen emakida arautzen duten oinarriak onartzea, bertan arautzen baita adierazitako xedea duten diru-laguntzak eskatzeko, emateko eta ordaintzeko prozedura, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren edukia araberak, eta lege horretan xedatutakoak izango dira aplikagarri oinarri hauek arautzen ez duten guztian.

2- XEDEA

Oinarri hauen xedea da Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoarentzat lehia-bidezko dirulaguntzak arautzea, mugaz gaindiko proiektuak sustatzeko. Proiektu horiek hiru hiriak inplikaturik dituzte turismoan, ondarean, kulturean, hirueletasunean, gazterian, kirolean, gizarte-ongizatean, mugikortasunean, ingurumenean edo intereseko beste eremu batzuetan. Proiektu horiek deialdiaren ekitaldian hasiko dira gauzatzen, eta gehienez ere 12 hilabeteko iraupena izango dute. Proiektu horiek, gainera, lurralde-koheretza, hiru hirien herritarren arteko elkar ezagutzea eta trukea, Bidasoaren bi aldeetako erakundearen arteko sarea eta lankidetzak, bizitza soziala, kulturala eta asoziatiboa integratzea, lurraldeko 3 hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea, eta Irun, Hondarribia eta Hendaiako hiru udalerrietan zabaltzea lagundu egiten behar dute, horietan araututako irizpide eta baldintzen arabera.

3- ESKAERAK

1. Indarrean dagoen legediaren arabera eratutako pertsona fisikoek edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte Oinarri hauen bidez arautzen diren diru-laguntzak. Pertsona fisiko edo juridiko horiek dagozkien erregistroetan inskribatuta egon behar dute, eta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa osatzen duten hiru hirietako batean izan behar dute egoitza soziala.



Bidasoa - Txingudi

2- Erakunde onuradunaren betebeharrak dira:

- a) Diru-laguntzaren xede den jarduera antolatzea eta burura eramatea.
- b) Jarduera honetatik eratorritako eskuorri, afixa, seinale, komunikazio eta informazio guztietan, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak jardueraren antolakuntzan duen lankidetzaz agerian geratzen dela bermatzea, eta HIRUAK BAT programaren irudia zabaltzea.
- c) Hiru hirietan ahalik eta parte hartze eta oihartzun handiena izatea bermatzea.
- d) Bidasoaren alde bietan sustatutako eta antolatutako ekitaldian Partzuergoko hiru hizkuntza ofizialak erabiltzea.

3-. Ezin izango dituzte oinarri hauetan araututako diru-laguntzak jaso:

- a)-. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 3 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean gertatzen diren proposamenek.
- b)-. Konstituzioak bermatutako eskubideak (14. artikulua: Diskriminazioa sorleku, arraza, sexu, erlijio edo iritzi zioak tarteko) urratzen dituzten elkarte edo entitateetatik etorritako proposamenek.
- c)-. Ez dira aintzat hartuko Bidasoa Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren aurreko bi ekitaldietako deialdietan diru-laguntzen onuradun izanik, lehendik jasotako diru-laguntzei dagozkien gastuak aurreikusitako epeetan eta behar bezala justifikatu ez dituzten elkarte edo entitateetatik etorritako proposamenak.

4- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak ez dira bateragarriak Irun, Hondarribia eta Hendaiako Udalek xede berari begira emandako beste udal laguntzekin. Aitzitik, bateragarriak izango dira helburu bererako beste Administrazioek, erakunde publiko edo pribatuek, nazionalak, Europar Batasunekoek edo nazioarteko erakundeek emandako beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin.

Beste laguntza batzuk jasoz gero, laguntza guztien baturak ezin izango du diruz lagundutako jardueren kostua gainditu. Bestela, deialdi honen kontura emandako diru-laguntza gutxituko da dagokion kopuruan.

5-ZENBATEKOAREN MUGA ETA AURREKONTUA ESLEITZEA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa dirulaguntzaren xede den proiektuaren kostu osoaren % 90era iritsi ahal izango da gehienez, eskura dagoen funtsaren eta lortutako puntuazioaren arabera. Zenbateko hori, beste laguntza publiko batzuekin batera, ezin izango dira jardueraren guztizko kostuak gainditu.

Beraz, dirulaguntzaren zenbatekoaren muga gorena onuradunaren alde murritzuko litzateke superabita izanez gero.

Erakunde onuradunak ez badu BEZ berreskuragarririk, kostuak BEZa barne dela kontabilizatuko dira; bestela, BEZik gabe kontabilizatuko dira.



Bidasoa - Txingudi

Oinarri hauen ondorioei begira, 20.000 euroko kopurua dago esleituta Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren aurrekontuan ekitaldi honetan zehar. Kopuru hori deialdiaren xede izango da abenduaren 31 baino lehen urte honetan.

Beraz, zenbateko hori da diru-laguntzen kontzeptuan eman daitekeen kopuru maximoa, betiere kanpotiko diru sarrerei buruzko aurrekontu aurreikuspenak betetzen badira eta kontuan izanik aldaketak egin daitezkeela dagozkion aurrekontuetan.

6- ESKAERAK ETA AURKEZTEKO EPEAK

Diru-laguntzak eskatu nahi dituzten pertsona fisiko eta juridikoek behar dituzte, eskabidea aurkezteko, eskabideak eta jarraian aipatzen den dokumentazioa consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman [helbidea: Ducoureau jauregia, Hendaia 8, 20301 Irun], astelehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik, **DEIALDIA OFIZIALKI ARGITARATU ETA BI HILABETEAN.**

1. Entitatearen eta harremanetarako pertsonaren datuak identifikatuko diren instantzia.
2. Identifikazio fiskaleko zenbakiaren eta erakundearen erregistroaren fotokopia edo baliokidea.
3. Ogasunarekiko betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak, egoitza Gipuzkoan duten erakundeek kasuan instantzian informazio hori zuzenean eskuratzeko baimena ematen denean izan ezik.
4. Programaren deskribapena eta sarreraren eta gastuen aurrekontua, BEZ berreskuragarriaren edo berreskuraezinaren erregimenaren aitortpenarekin batera.
5. Helburu bererako beste diru-laguntzarik eskatu den ala ez adieraztea.
6. Hala badagokio, entitatearen arteko akordio protokoloa edo baliokidea.
7. Kontuaren titularitasun agiria.
8. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 3 artikuluetan aurreikusitako egoera bakar batean ere ez egotearen adierazpena.
9. BEZ berreskuragarriari edo berreskuraezinari buruzko adierazpena.

Instrukzio organoak egiaztatzen badu aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan exijitutako betebeharrak betetzen ez dituela, erakunde edo pertsona eskatzaileari hamar eguneko epea emango dio akatsak zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta, hala egiten ez badu, eskaera aintzat hartuko ez dela ohartaraziko dio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Dokumentazioa aurkezten ez bada galdu egingo da diru-laguntzaren onuradun izateko aukera. Era berean, datuak ezkutatu edo faltsutuz gero, galdu egingo da diru-laguntza horiek eta, hala badagokio, etorkizuneko diru-laguntzak jasotzeko eskubidea.

Ez da onartuko eskuz egindako eskabiderik.

7- DIRULAGUNTZEN EBALUAZIOA ETA DIRULAGUNTZAK EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA



Bidasoa - Txingudi

Eskaerek onarpen-baldintza guztiak bete beharko dituzte. Zuzendu beharreko onarpen-baldintzak betetzen ez baditu, 10 egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean zuzendu beharko dira, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidea baztertu egingo da.

Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeak aztertuko ditu eskabideak, instrukzio-organismoak txosten teknikoak aurkeztu ondoren, eta Partzuergoko Presidentetzari dagokio, bere proposamena ikusita, diru-laguntza ematea ebatzea, hala badagokio, ebazpen bidez. Ebazpen horretan, hala badagokio, organo instrukzio-egileari aholku eman dioten udal-ordezkariek aipatuko dira, betearazpena kontrolatzeko.

Eskaera aurkezteak ez du berez diru-laguntza jasotzeko eskubiderik ematen, diru-laguntza orok berez duen hautazko izaera izango du emakidak, eta diru-laguntza emateko, ezinbestekoa izango da dagokion aurrekontu atala izatea.

Diru-laguntzen deialdian finkatutako irizpideen arabera lortutako puntuazioaren hurrenkeran eta proportzioan emango dira diru-laguntzak, ekitaldi honetan zehar Aurrekontuen aurrekontu esleipena agortu arte.

Epaimahaiak diru-laguntzak osorik edo zati batean eman gabe uzteko proposamena egin ahal izango du. Hala bada, bigarren deialdia egiteko aukera balioetsiko da.

8- ERAKUNDE LAGUNTZAILEA

Bidasoko Garapen Agentzia, S.A.ri (Bidasoa bizirik) dagokio oinarri hauetatik eratorritako laguntzak emateko kudeaketa eta izapidetze lanak bideratzea eta Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren izenean eta kontura laguntzak ematea eta banatzea. Hori guztia Partzuergoaren jarduerak eta programak kudeatzeko lankidetzak hitzarmenean oinarrituta.

9- INSTRUKZIO ORGANOAK

Erakunde Laguntzaileak Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoaren esku jarritako teknikari taldeari dagokio emandako laguntzen argitalpena, emakida, jarraipena eta kontrola izapidetzea eta dagozkion espedienteak egitea.

Organo instrukzio-egile horrek, kasuaren arabera, eskatutako dirulaguntza bakoitzaren tratamendu-eremuari dagozkion udal-zerbitzuen aholkularitza eskatu ahal izango die, edo, halakorik ezean, Partzuergoko kide diren udalerri bakoitzak adierazitako ordezkari.

10- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA GASTUAREN FROGAGIRIAK

Dagozkion izapidetze administratiboak egin ondoren, erakunde laguntzaileak ordainduko ditu diru-laguntzak. Diru-laguntza horiek behin bakarrik ordainduko ditu, behin Partzuergoari memoria eman ondoren.

Hala eta guztiz ere, egoki irizten denean, onartutako diru-laguntzaren zenbateko osoaren % 50 ordaindu ahal izango da, gehienez ere. Aurrerakin gisa ordainduko da, Partzuergoko Lehendakariaren ebazpen bidez diru-laguntzak esleitzeko ebazpena



Bidasoa - Txingudi

eman ondoren, eta entitate onuradunak ez du egikaritzeko berme finantzarioak aurkezteko obligazioa izango.

Onartzen den diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa edo % 50eko bigarren ekarpena ordaintzeko entitate jasotzaileek behar dute jarraian aipatzen den dokumentazioa consorcio@bidasoa-activa.com helbide elektronikora bidali muga eguneko 14:00etarako, edo Bidasoa-Txingudi Mugaz-gaindiko Partzuergoaren bulegoetara eraman [helbidea: Ducoureau jauregia, Hendaia 8, 20301 Irun], astelehenetik ostiralera bitartean, 09:00etatik 14:00etara, jaiegun eta zubietan izan ezik :

1. Diru-laguntza justifikatzeko instantzia (Partzuergoaren egoitzan oinarri hauekin batera eskuragarri dauden justifikazio ereduarekin bat etorruta).
2. Memoria osoa, oinarri hauetan adierazitako irizpide eta baldintzekiko errespetua justifikatuz.
3. Egindako gastuen egiaztagiriak (fakturen edo ordainketa agirien kopiak), diruz lagundutako jardueraren garapenak eragindako proiektuaren gastu guztiei buruzkoak.
4. Aipatutako ez gairi bestelako diru-sarrerarik ez jaso izanaren aitortpena.
5. Gastuak eta sarrerak justifikatzeko kontua.
6. Proiektuaren irudiak eta ikus-entzunezkoak.

Aurkezteko gehienezko epea honako hau izango da:

- a) **2 hilabete**, jarduera amaitu ondoren;
- b) edo **2 hilabete**, diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, jarduera ebazpena baino lehen amaitu bada;
- c) Nolanahi ere, deialdiaren hurrengo urteko **abenduaren 31 baino lehen**.

Hauexek dira diru-laguntzen pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak:

- Partzuergoari laguntzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko eskatzen duen guztia ematea.
- Diru-laguntza jasotzerakoan aldagaita objektibo edo subjektiboren bat gertatzen bada, Partzuergoari jakinaraztea.
- Partzuergoari jakinaraztea laguntza harez gain helburu bererako beste laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasotzen baditu, sektore publikokoak zein pribatukoak.
- Diru-laguntza eman den xede zehatzerako erabiltzea.

Diru-laguntzaren xede den jarduera eskaeran adierazitakoaren arabera eramango da burura. Diruz lagundutako gastu guztiak egikaritzen ez badira, modu proportzionalan murriztuko da emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Era berean, superabita egiaztatzen bada, dagokion aldea kenduko zaio emandako diru-laguntzaren zenbatekoari.

Diru-laguntzei buruzko lege orokorraren 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta, diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko da diruz lagundutako jardueraren izaerarekin guztiz bat datorrena, behar-beharrezkoa dena eta deialdi honetan



Bidasoa - Txingudi

aipatzen den ekitaldiaren barruan egin eta ordaintzen dena. Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, ordaintzeke egon arren, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurreko bi hilabeteetan egindako fakturak.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, ordaintzeke egon arren, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epea amaitu aurreko bi hilabeteetan egindako fakturak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira:

- Ekitaldia burutzeko kontratatutako edo jarritako langile gastuak, gehieneko emandako diru-laguntzaren %50-a izanik (orduak gehieneko kostua: 35 euro eskura jarritako langile propioen kasuan – 69 euro kanpoko zerbitzu baten bidez kontratatzen bada).
- Proiektuaren komunikazio eta kartelgintza gastuak.
- Garraio, dieta edo joan-etorri gastuak emandako diru-laguntzaren %10 gehienez.
- Kanpo zerbitzuak emateko gastuak.
- Itzulpen eta interpretatze gastuak.
- Erabili beharreko materialak erosteko gastuak.
- Itxiera ekitaldiko catering, sari edo antzeko gastuak emandako diru-laguntzaren %10 gehienez.
- Proiektuaren egikaritzeari lotutako gastu orokorrak (telefonía, inprimaketak, zigiluak, mezularitza, papergintza...) emandako diru-laguntzaren %5 gehienez.

Oharra: Oinarri hauen xede diren laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako jardueraren % 100 gauzatzeko beharrezkoak diren prestazioak hirugarrenekin kontratatuz gauzatzea onartuko da.

Ez dira justifikagarritzat onartuko:

- Erakunde eskatzailearen berezko administrazio, langile edo antolaketa kostuak, jarduerarekin zerikusirik ez dutenak.
- Zuzendakariaren nominak pertsona fisikoen kasuan, edo Zuzendaritza Batzordeko kideenak erakunde eta pertsona juridikoen kasuan.
- Ostalaritza zerbitzuei dagozkien bazkarien, afarien eta bestelakoek kostuak, salbu eta diruz lagundutako jardueran parte hartzen dutenekin lotuta sortutakoak.
- Faktura edo ordainagiria egitea eragin duten jarduerari dagozkien gastu oharrak.
- Zuzendaritza Batzordeko kideak erakunde onuradunarekin partekatzen dituzten beste erakunde batzuek egindako fakturak.

Erakunde onuradunak ez badu BEZ berreskuragaririk, kostuak BEZa barne dela kontabilizatuko dira; bestela, BEZik gabe kontabilizatuko dira.

Horregatik guztiagatik, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaiindiko Partzuergoak oinarri hauetan izendatutako Instrukzio Organoak egin ditzakeen ikuskaritza lanen xede izango da proiektuaren ardura duen erakundea edo pertsona.

11- DIRULAGUNTZEN KONTROLA

Instrukzio Organoak, Zuzendaritza Batzordeak eta Partzuergoko Presidenteak egoki irizitako egiaztapen guztiak egiteko eskubidea izango dute, datuen fidagarritasuna eta diru-laguntzen erabilera zuzena egiaztatzeko.



Bidasoa - Txingudi

12- EZ BETETZEA

Jasotako zenbatekoak itzultzeko eta berandutze interesa ordaintzeko eskatuko da, hala badagokio, diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrera, honako kasu hauetan:

- a) Diru-laguntza emateko akordioak ezarritako epeak betetzen ez badira
- b) Diru-laguntza emateko xedea betetzen ez bada.
- c) Diru-laguntza lortzen bada horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

Era berean, oinarri hauei eta horien arabera emandako laguntzei aplikagarriak zaizkie Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan arau hausteei eta zehapenei buruzko xedapenak, eta Partzuergoko Lehendakaritzak abiatu eta ebatzi behar ditu dagozkion espedienteak.

13- INTERPRETAZIOA

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan eta emandako laguntzen gauzatzearen eta garapenaren inguruan sor daitekeen edozein zalantza Partzuergoko Presidenteak ebatziko du, Zuzendaritza Batzordeak, instrukzio-organoak aurkeztu ondoren, egindako txostenak ikusita.

Iruten, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA – TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

2026 EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA

AURREKONTU EXEKUZIORAKO ARAUA

21/2003 Foru Arauaren 6.3c) artikulua



Bidasoa - Txingudi

1. Artikulua

Partzuergoaren Aurrekontuaren onarpena, kudeaketa eta kitapena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUan eta Exekuziorako Oinarri hauetan xedaturikoaren arabera bideratuko dira. Oinarri hauek indarrean egongo dira Aurrekontua indarrean dagoen artean. Horrexegatik, Aurrekontu hau luzatzera, Arau honek indarrean jarraituko du harekin batera.

2. Artikulua

2026ko aurrekontu-ekitaldirako Partzuergoaren Aurrekontua – gastuak, dirulaguntzen berdinak direlarik - **LAUREHUN ETA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMO (409.662,60€)** da.

3. Artikulua

Partzuergoak ezin izango du inolako abal eta garantiarik eman hirugarren pertsonen aurrean. Era berean, bere Aurrekontuaren gastuak finantzatzeko ezin izango du kreditu-eragiketetara jo.

4. Artikulua

Aurrekontuan eta aurrekontu aldaketetan onartutako helburu espezifikoak betetzeko soilik erabiliko dira gastuetarako kredituak.

Partzuergoaren Aurrekontuan baimendutako gastuak izaera murriztailea eta loteslea izango dute, honako lotura-maila hauen arabera:

- I., II., III. eta IV. Kapitulua. Kapituluen mailako Lotura.

5. Artikulua

Kreditu-aldaketa

Aurrekontuen kredituak aldatu ahal izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 FORU ARAUan xedaturikoari jarraiki eta Aurrekontuaren Exekuziorako Oinarri hauetan aurkezturiko zehaztapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamen orok zehaztuko du ukituriko programa funtzionala zein den, eta adierazi egingo du, era berean, egin beharreko ekintzetan eta lortu beharreko helburuetan izango duen eragina. Behar izanez gero, dagozkien adierazleen kopurua eta maiztasuna eguneratu egingo dira.



Bidasoa - Txingudi

Kredituen transferentzia

Funtzio programa baten baitako transferentziak Partzuergoaren Lehendakariaren eskuduntza dira, Partzuergoaren Batzar Nagusiak onartu beharreko benetako inbertsioetarako aurreikusitako sailak gutxitzeko ez badira.

Funtzio programa ezberdinen arteko transferentziak Partzuergoaren Lehendakariak onartu behar ditu jatorrizko eta jomugarako programetan metatutako aldaketan bariazioak hasieran aurreikusitako sailen %25 gainditzen ez badu eta egiazko inbertsioetarako sailak gutxitzen ez badira.

Beste kasu guztietan, Partzuergoaren Batzar Nagusiak hartuko du hartu beharreko erabakia.

Kredituen gaitzea

Kredituak Sortzeko espedienteak Partzuergoko Lehendakariaren aginduz hasiko dira; espediente horiek dagozkien programen arduradunek hasiko dituzte kredituen gestioa beren kargu duten unitateetan.

Proposamenarekin batera neurri hori hartzeko beharra azaltzen duen memoria aurkeztuko da. Egin beharreko aldaketaren mota eta ukitzen dituen aurrekontu-sailak zehaztuko dira proposamen horretan.

Lortutako sarrerek behin betiko izaera baldin badute, Partzuergoaren Lehendakariak onartzeko du kredituen gaitzea. Beste kasuetan, Partzuergoaren Batzar Nagusiarena da eskuduntza.

Kredituak Gehitzeko espedienteak

Lehendakariak du onartzeko eskuduntza.

Kreditu gehigarriak

Partzuergoaren Lehendakariak du urtean zehar aurrekontuaren %5etik gorako igoera eskatzen ez duten kreditu gehigarriak onartzeko eskuduntza.

6. Artikulua

1.- Gastuen Aurrekontua gauzatzeko faseak

Honako fase hauen arabera egingo da Gastuen Aurrekontuaren gestioa:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastua eratzea.
- c) Betebeharra onartzea.
- d) Ordainketa agindua ematea.
- e) Benetan ordainketa egitea.

2.- Gastuak baimendu eta eratzea



Bidasoa - Txingudi

Honako eskuduntza-erregimen hauen arabera egingo da gastuen baimentzea eta eratzea:

a) Gastuak Batzar Nagusiko Lehendakariak baimendu eta eratuko ditu gastu horiek Aurrekontuaren ohiko baliabideen %10 gainditzen ez dutenean.

b) Gainerako gastuak Partzuergoaren Batzar Nagusiak baimendu eta eratuko ditu.

3.- Betebeharrak onartzea

Batzar Nagusiko Lehendakariari dagokio legearen arabera egindako gastuetatik etortzen diren betebeharrak onartzea.

4.- Ordainketa agindua ematea

Batzar Nagusiko Lehendakariari dagokio aldez aurretik onartutako betebeharrak ordaintzeko agindua ematea.

7. Artikulua

Emandako transferentzia eta dirulaguntzen tramitazioa

Onuraduna Aurrekontuan espresuki azaltzen den kasuetan, transferentziak eta dirulaguntzak bideratzeko ekitaldiaren hasieran tramitatuko da "AD" dokumentua.

Gainerako transferentzia eta dirulaguntzetan, ematen diren unean tramitatuko da "AD" dokumentua.

Edozein dirulaguntza ordaintzeko agindua eman ahal izateko, dirulaguntza hori jasotzeko eskatutako baldintzak bete dituela egiaztatu beharko du onuradunak, finantzatu beharreko jardueren izaera dela eta, baldintzak betetze hori fondoak jaso ondoren egiaztatu daitekeenean izan ezik.

Azken kasu horretan, "egiaztatzeko" izaerarekin emango dira fondoak, eta baldintzak betetzeko eta baldintza horiek bete direla egiaztatzeko aurreikusitako epea zehaztuko da.

"Egiaztatzeko" transferentzia eta dirulaguntzak ordaintzeko aginduak erakunde onuradunek prestatutako eta Batzar Nagusiko Lehendakariak onartutako ordainketa-egutegiaren arabera emango dira, Partzuergoko Kontuhartzailearen oniritziarekin beti ere.

8. Artikulua

Jasotako transferentzia eta dirulaguntzen tramitazioa



Bidasoa - Txingudi

Hiruhileko bakoitzaren hasieran, emandako eta sarreren aurrekontuan jasotako transferentzia arrunten laurdena ordaintzeko eskatuko zaie Partzuergora bildutako Udalei.

Halaz ere, beharra dagoenean, ordainketak aurreratzeko beste epe batzuk eskatu ahal izango dira Lehendakariak proposatuta.

9. Artikulua

Ondoko programa hauen gauzatzea haietako bakoitzean zehaztutako guztizko kopuruaren bidez egingo da, ondoren zehazten diren kanpoko sarrerak baieztatzen diren heinean. Sarrera horiek ez badira baieztatzen, sorturiko kopuruaren arabera murrizketa egingo da programa bakoitzaren exekuzioan:

- Kulturaren sustapena:
 - 6.557,60 € Gipuzkoako Foru Aldundiaren Dirulaguntza
- Kirola sustatzea eta bultzatzea:
 - 11.665,00 € Gipuzkoako Foru Aldundiaren Dirulaguntza

Iruten, sinaduraren datan.

PRESIDENTEA

